



Iñaki Begiristain Albisu

(1922-1984)

Antzerkigilea

- *“Bata zu eta bestea ni”*
- *“Hitz hutsak”*

Iñaki Begiristain Albisu

(1922-1984)

Antzerkigilea

- *“Bata zu eta bestea ni”*
- *“Hitz hutsak”*

AURKIBIDEA

<i>Iñaki Begiristain Albisu (1922-1984)</i>	1
<i>“Bata zu eta bestea ni”</i>	13
<i>“Hitz hutsak”</i>	89

IÑAKI BEGIRISTAIN ALBISU 1922-1984

Iñaki Begiristain Albisu Altzoko herrian jaio zen 1922ko irailak 14 an Borda baserrian. Aita-amak ataundarrak zituen, Jose Ramon Begiristain Aierbe Ataungo Aiakoa, aita eta ama, berriz, Josefa Albisu Baztarrika Ataungo San Gregoriokoa.



Iñaki Begiristain Albisu.

1956. urteko azaroaren 27an Errezilgo Matilde Irulegi Azpillagarekin ezkondu eta kabia Alegian prestatzen dute; geroztik hiru seme-alabek argia ikusi dutelarik: Mila, Joxan eta Iñakik.



Matilde Irulegi Azpillaga.

IÑAKI ANTZERKILARIA

Iñaki Begiristainek hiru alor nagusitan arituaz euskal antzerkiaz gozatu zuen, eta ez nolanahi, Antzezlaria, Zuzendaria, eta Egilea ere izan baita.

ANTZEZLARI;

Hiru alor hauek prozesu orekatu batean pasa zituen. Antzerkiaren xixarea tikitandik Iñakiri kilikatzen hasi zitzaion, eta ikasketak Tolosan egiten ari zen bitartean lehen pausoak taula gainean antzezleri bezala

eman zituen. Garai hartako antzezkizun gehienak erdaraz izaten omen zituzten, hala eta guztiz ere antzerkiaren xixarea kemendu zitzaion.

Ikasketak amaitu eta zenbait urtez antzerkiaren xixarea lozorroan erortzen da: Hiru urteko soldaduskak, ogi-bidea zuzendu beharrak, etabarrek eta familiarentzat kabia pres-tatu beharrak antzerkiarekin izan zuen lokarria eten zuten.

ANTZEZLARI ETA ZUZENDARI

Ezkundu eta bizikera zuzendu zuenean berriro antzerkiari ekin zion, KIMUBERRI taldea Alegin sortzen du eta bertan zuzendari eta antzezlari bezala aritu zen. Talde honen bizitza zortzi urtekoa izan zen. Baita ere esan antzerkirako zaletasuna inguruan zabaltzen hasten dela eta gainera horrelakoetan zaila izaten dana gertatu zitzaion; bere alaba Milarekin batera Iñakik Markesaren alaba antzerkia antzeztu zuela.

Kimuberri antzerki taldea itzali zenean Begiristainen pausoak Tolosa alderakoak izan ziren. Bertako OARGI antzerki taldea zuzentzen du hiru urtez.

Kimuberri taldeak euskal antzerki mugimenduan lehen urratsak ematen dituen momentuan Euskal Antzerki mugimendua oso bizirik zegoen. Nahiz zentsura oso zorrotza izan. Pena merezi du garai hartan antzerki taldeak zeuden herrien izenak aipatzea,adibidez: ALEGIA; ANDOAIN; ANTZUOLA; ASTEASU; AZPEITIA; BERGARA; BILBO; BRINKOLA; DONOSTIA (hemen bi talde zeuden) ELGOIBAR; HERNANI; ERRETERIA; GETARIA; IDIAZABAL; IRURA; ITXASO; LAZKAO; LEGORRETA; LEZO; MENDAXA; OIARTZUN; OÑATE; ORMAIZTEGI; URNIETA; URRETXU; ZALDIBIA; ZARAUTZ; ZESTUA; ZIZURKIL eta ZUMAIA.

Garai hartan euskal antzerki taldeak berrogeiren bat izango ziren Ifarraldekoak zenbatuz.

Giro honen partaide izan nintzen ni ere, eta horrela zenbait batzarretan parte hartu nuen eta handik hasi zan nere Iñakirenganako ezaguera.

Euskal Herrian giroa zeharo nahastu zen Eszepzioko Legea, Burgoseko epaiketak eta abarrengaitik. Euskal Herriak jasan zuen errepresioak Euskal antzerki mugimendua hausten du ixiltasunera makurtuaz.

ZUZENDARI ETA EGILEA

1970.urtean Euskal antzerkia berpizten hasten da eta Iñaki ere mugimendu honen partaide bihurtzen da. 1979.urtean INTXURRE antzerki taldea sortzen du. Teknika berrien korronteak euskal antzerki giroa astintzen du, eta gure belaunaldia giro horretan esperimentatzen ibiltzen ginen bitartean Iñaki bere euskal antzerkiarekiko sinismenean txingurri lana egiten ari zen eta hala zioen:

"Gure taldea, oraingoz, ez da ahalegindu gorputz-espresio, mimo etabarretan, esakeran baizik. Izan ere, nere ustez, Hiz-kuntza baita gizakumearen espresio-biderik bereziena eta herriaren nortasunaren ezaugarriarik garrantzitsuena. Norbere hizkuntza behar du herriak eta hizkuntzarik gabe ez dago herririk, herri bizirik behintzat. Hau honela delarik, ahozka-ketan ahalegintzen gara gehien bat. Euskal hitzak bi azentu dituztelarik, hemen ere badago zeregina, bai esaldi bakoitzeko galdegaiak bereiztu eta esaldiari dagokion fonetika edo euskal-doinua lortzen ere, benetako euskera nahi badugu. Lotsagarria da, lotsagarriarik ezer bada, zenbait taldeen esakera. Erdal fonetika nabarmena ezartzen diote euskara esaten dutenari eta hauxe bai dela itsusia "Antzerki"koek eta Euskal Telebista

koek ere ba-dute non zer jorraturik..... Araneta jaunaren antzekoak behar genituzke ugari eta euskarenganako mai-tasunez ongi hornituak, ogibidea ahaztu eta aitzur zorrotzez jorra gaitzaten."

BEGIRISTAIN IDAZLEA

Iñaki idazlea zen, bere lana zabala delarik, landu zituen olerkia eta ipui laburrak, baina bere lanik nagusienak antzerkian jorratu zituen. Iñakik zer pentsatzen zuen garaiko euskal gizarteaz bere antzerki lanen bidez ikusi ahal izango du irakurleak.

APAIZ LANGILE ETA
GIZON.1968.urtean idatzia.
Donostiako Agora saria, A.
Zubikarai jaunarekin erdibana-
tua. Berrogeitaka aldiz antzeztu
zuen obra hau Lazkaoko talde-
ak. Hiru ekitaldikoa. Antzezlar-
iak: Gizonezkoak 9 eta emaku-
mezkoak 6. Apaiz bat guraso eta semeen arteko gatazka bide-
ratu nahian dabil.

BIZIA BIZI TRUK. 1969.irailan idatzia. Donostiako "Agora" saria,
A. M^a Labayen jaunarekin erdibanatua. Euskadi osoan antzez-
tu dute antzerki hau hiruzpalau taldek. Lau ekitaldikoa. Ant-
zeslariak: 5 gizonezkoak eta 6 emakumezkoak. Sendi bateko
gatazka,



Juan Mari Lekuona, Manuel Lekuona eta Iñaki Begiristain Xuberoako Pagol'en (1983).

*aita enpresa bateko nagusia da, semea langileen mugimendua-
ren defendatzailea da eta semeak langileak grebara bultzatzen
ditu.*

*BAKARTASUN BILLA. 1970. urtean idatzia. Donostiako Agora saria-
ren irabazle, Gipuzkoa eta Bizkaian zehar ibili zuen Urnietako
"Egi Billa" Taldeak M^a Arizmendiren zuzendaritzapean .Hiru eki-
taldikoa. Antzeslariak: Gizonezkoak 7 eta emakumezkoak 5.
Mutil gazte bat bere lantegia utzi eta Ameriketara artzain joaten
da eta itzultzean sendi, adiskide etabarren giro nahastua aurkit-
zen du.*

*ERRURIKGABE ERRUDUN. 1971. urtean idatzia. Hiru ekitaldikoa.
Antzez-lariak: Gizonezkoak 6 eta 4 emakumezkoak. Herri txiki
bateko neska gazte bat haurdun geratzen da eta neskaren anaiak
bere arreba haurdun utzi duen mutila hiltzen du.*

*IPARRAGIRRE. Guerreroren "Iparraguirre"ren itzulpena. Donostiako
Iztunde Eskolarentzat itzulia eta 1972. urtean Donostiako Antzo-
ki Zaharrean lehen aldiz antzeztua izan zen.*

*MUGASLEAK. 1973. urtean idatzia Donostiako Agora sariaren ira-
bazle, "Egi Billa" taldeak herriz-herri jokatu zuen. Hiru ekitaldi-
koa. Antzez-lariak: 12 gizonezko eta 4 emakumezko. Mugaren
inguruan dagoen herriskan kontrabandistekin sortzen diren hil-
ketak, etabarrak.*

*KIRATSA DARIO. 1974. urtean idatzia "Egi Billa" taldeak Euskal
Herri osoan antzeztu zuen. Hiru ekitaldikoa. Antzeslariak: Gizo-
nezkoak 7 eta emakumezkoak 12. Bikote gazte bat ezkontzen da;
gizona bizioek mendekotz hartzen dute eta egoera honetan gizo-
nak bere buruaz beste egin nahi duen momentuan emazteak
laguntzen dio.*

IGARTUTAKO LANDAREA. 1975. urtean idatzia. Berrogeitaka aldiz antzeztua, "Egi Billa" antzerki taldeak. Hiru ekitaldikoa. Antzezlariak: Gizonezkoak 5 eta emakumezkoak 4. Neskametz langintzan ari den neskato batek ama ez du ezagutzen eta etxe aldaketa batean bere amarekin topo egiten du.

BATA ZU ETA BESTEA NI. 1976. urtean idatzia eta urrilaren 26an Urnietako "EGI BILLA" antzerki taldeak Alegian antzestu zuen. Hiru ekitaldiakoa. Antzezlariak 8 gizonezkoak eta 4 emakumezkoak. Irri antzerkia. Obra honekin, Azpeitiako Topaketetan Alegiako "Intxurre" taldeak lehen saria lortu zuen 1983. urtean.

ANTZERKI HONEN BANAKETA HONELA IZAN ZEN:

KALIXTO FELIX IRAZUSTABARRENA
PELLO JOSE AYA
ON TORIBIO JABIER URBIETA
KOLDO JOXE ARRAIET
JOXE IÑAKI ZUBELDIA
TXOMIN J. RAMON MAROTIAS
GAZTEA.I XABIER OLANO
GAZTEA II BIXENTE GARAIALDE
ANTTONI KARMELE ARANDIA
SATURDIÑA MILAGROS BEGIRISTAIN
MIRENTXU PILI GARMENDIA
KATTALIN PILAR JAUREGI

ZUZENDARI: IÑAKI BEGIRISTAN
(Antzerki lan hau liburuxka honetan argitaratzen da.)

LURRUN ARGIA. 1977. urtean itzulia. P. Hamiltonen "Luz de Gas" antzerkiaren itzulpena eta Urnietako "Egi Billa" taldearentzat euskaratua eta 1978. urtean lehen aldiz antzeztu zuen.

TXORIAK KABIA AMETS. 1978. urtean idatzia Lau ekitaldikoa. Antzezleriak, 8 gizonezko eta 5 emakumezko. Baserri girora murgildutako antzerkia. Antzerki hau Bizkaiko sariketa batera Xefe Balerdi bere ilobaren izenarekin aurkeztu zuen, saria irabaziaz.

GORROTOA HERIOTZA ETA NEGARRA. 1979. urtean idatzia Gasteizko Denok sariariaren irabazle. Hogeitabost aldiz antzeztu zuen alegiako "Intxurre" taldeak. Hiru ekitaldikoa. Antzesleriak: Gizonezkoak 8 emaku-mezkoak 4. Baserri giroan bi sendiren artean sortzen den gatazka seme gazte batek ihesi egin behar du.

HERNIALDEKO APAIZ TTIKIA. 1980. urtean idatzia. Ekitaldi bateko antzerkia. Antzezleriak: Gizonezkoak 12 eta 4 emakumezkoak. Santa Kruz apezaren gertaerak hogeitaz eszenatan kondatzten ditu.

ITZALTZUKO KOBLAKARIA" A. Campionen "El Bardo de Itzaltzu"ren lanetik antolatutako antzerkia. Lan hau Donostiako Iztunde Eskolarentzat prestatua izan zen eta 1980. urtean Donostia Antzoki Zaharrean antzeztua.

ETSIPENAREN SAREAK. 1981. urtean idatzitako antzerkia. Lau Ekitaldikoa. Antzezleriak, 4 gizonezko eta 4 emakumezko. Famili bateko gizonak emakume bat bortxatuz mundura haur bat ekarriarazten du; ondoren kasurik ez egiteko. Neskatoa hazten danean drogaren menpean erortzen da eta gizon horren semeak dena jakiten du.

HITZ HUTSAK. 1982. urtean idatzia. Ekitaldi bakarra. Hogeitaka aldiz antzeztu du "Intxurre" taldeak. Euskaltegietako ikasleek ere hamaika aldiz antzeztu dute. Euskararenganako zuen maitasuna ondo agertu izan du bere lanetan eta hori ederki ikusi daiteke antzerki honetan. Honela dio:

*Hitzlari I.- Jaun-andreok; orain lau urte esan nizuen bezala, ni euske-
ra ikasten ari naiz, baina superfizialmente dominatzen dut
oraindik eta nere irten-bentzioa ez da izango nik nahi bezain flui-
doa eta nitidea.*

*Iñaki Begiristain gizon zorrotza zen eta gauzak bere
tokian jartzea gustatzen zitzaion eta euskararenganako
zuen errespetoak etsai bat baino gehiago aurkitu arazi
zion bere ibilbidean, baina horrek ez zuen kokiltzen,
zuzentasuna baitzuen eredu. Aipatutako antzerki obra
honetan ere zenbait politikariren harropuztasuna kritikatu-
zen du.*

*ARRE ASTOA. Hurrei zuzendutako antzerkitxo. Tolosako C.I.T
sariaren irabazlea. Ikastetxe askotan antzeztua izan da.*

*TROIARRAK. Euripidesen antzerkia. ANTZERTIren eskariz 1983 urte-
an itzuli zuen, itzulpenetik at ere bi erara antolatu behar izan
zuen bi zuzendarik hala eskatu baitzioten; bata Esteban Polls eta
Luis Iturri bestea. Aurreneko zuzendariarekin Antzerki eskolako
ikasleek hainbat aldiz antzeztu zuten eta Luisekin profesionalki
antzerki honetarako antolatutako konpaini batek Euskal Herri
eta Espaini osoan berau, taularatu zuen.*

*MARIATTO. Lau ekitaldiko antzekia. Nafarroako mendi-herri batetan
sustraiturik du antzerki honek bere gaia, 1576. urtean kokatzen
da. Antzerki hau prestatzen ari zenean mundu hau utzi zuen
1984ko ekainaren 13an. Hil zan egu-neraino antzerki honen bi
atal idatzi zituen.*

AITORMENA

Aurkezpen honen egileak urte askoz harremanak izan zituen Iñaki-rekin; harreman gehienetan bezala gora-beherak ere izan ziren. Gure arteko hartuemanak hamarkada luze batekoak izan ziren (1974-1984). Euskal gizarteko alor askotan igarobideko unea zen, aldakuntzaren zurrunbiloan kokatuak geuden, franquismoaren azken ostikadak, euskara, kultura, alderdien legeztatzea, etabar.

Gaur bati bizarra xuritu, eta bizkar gainera mende erdia erortzen zaionean erreflexiorako asti gehiago izaten du eta bizitzan egindako on eta petralkeriak ere hobeto aztertzen ditu.

Euskal antzerkiari bide berriak eskaintzearen han hemenka irakurri, ikusi eta ikasten genituenak taularatzen genituen. Batzuetan asmatzen genuen eta gure harrokeria puzten zen eta momentu hartan Iñaki aurrez aurre aurkitzen nuen eta behin eta berriz adierazten zidan, testoaren, ahozkeraren eta euskeraren erabileraren garrantzia. Antzerkia ez da ikusmena bakarra entzumena ere hor dago. Eta ikuskizun antzua gelditzen zala esaten zidan baldin eta ikusleagoari bi bide hauen (ikusmena eta entzumena) gozamina eskaintzen ez bagenion.

Iñakirentzat herritarrek erabiltzen zuten euskara taularatu behar zen eta honek sari askotan arazoak sortu zizkion eta hau jakinik epai mahaikoei begiak gozatuko zizkion euskara erabiliaz antzerki bat bidali zuen eta baita lehen saria irabazi ere. Aro horretan Iñakik oztopo eta traba asko gainditu behar izan zituen.

Iñakik lan asko egin zuen eta lan horretaz asko gozatutako bat Urnietako "EGI BILLA" antzerki taldea dugu, zeren bere bost antzerki lan antzeztu zituzten Maria Arizmendi anderearen zuzendaritzapean.

Gaztetxoei zuzendutako antzerki asko idatzi zituen, baita ere banatu ere; nahiz eta gero inork gutxik berari berriz itzuli. Eta hau da arrazoia nik bere gaztetxoentzako antzerkien ezaguera eskasa izateko.

Azkenik eskerrak eman AZPEITIAKO TOPAKETEI Iñaki Begiristaini eskaini dioten omenaldi eta arretagaitik. Eta bere bi obra "Bata zu eta bestea ni" eta "Hitz hutsak" liburuxka honen bidez irakurleari hurbiltzeagaitik.

Besterik gabe irakurle maite horrek goza ezazu bi antzerki obra hauekin.

*Eugenio Arocena
Oiartzunen 1995 irailaren 22an.*




Iñaki Begiristain eta bere alaba Mila



“MARKESAREN ALABA” (Joseba OLAIZOLA)
KIMUBERRI taldea.
Alegia, 1965.III.28

1983ko Abenduaren 2tik 21ra



BATA ZU ETA BESTEA NI

(Irri-antzerkia, hiru ekitalditan)

Obra honekin, Azpeitiako Topaketetan Alegiako "Intxurre"
taldeak lehen saria lortu zuen 1983. urtean.

REPARTOA

KALIXTO

ANTTONI

PELLO

SATURDIÑA

ONTORIBIO

KOLDO

MIRENTXU

KATTALIN

JOXE

TXOMIN

GAZTEA

GAZTEA

LEHENENGO EKITALDIA

(Oinetako-konpontzaile baten lan-tokia izango da ekitaldi honetako antzez-leku. Atariko atea ezkerrean eta etxerakoa bestaldean. Apal bat edo beste horman, oinetako zaharrez beteak.

Oinetako-konpontzaileari dagokion mahai bat eta aulki bi mahaiaren alboan; beste aulkitxo bat erdian. Jazkera laburra duen andereño baten irudia du horman isekirik dagoen egutegiak... Bi txingura, ezten, mailu, harri, belaun-harri eta txatal ezarleak erabili ohi dituen beste edozein tresna, han-hemen.

I

KALIXTO *(Gizaseme errena da. Mailuketan ari zaio oinetako zahar bati, oihala zabaltzean. Horman dagoen egutegiari begiratu eta algara egingo du; apal-gainean dagoen erloju txirrindunari begiratuko dio, buruari eraginaz, haserreturik bezela).*

II

KALIXTO ETA IZPER-SALTZAILEA

IZPER *(Aurrera doa, izpar-sorta galtzarbean eta izper bat Kalixto'ri eskaintzen diolarik). Egun on, Kalixto. Garaiz ekion diozu lanari.*

KALIXTO Beharko...

IZPER Nahiko duzu, noski, albistaria.

KALIXTO Hartuko ez banu, hobe.

-
- IZPER** Isilik zagoz, Kalixto... Hoge pezeta zer dire, bada, zuretzat?
- KALIXTO** Hutsa dituk hoge pezeta (*eskuan duen albistaria erakutsiaz*) eta hau ere bai, halaxen duk, hutsa. Fubola eta gezurra ugari, besterik ez.
- IZPER** (*Farrez*) Hau duk Kalixto, hau... (*Kalixto'k eman dion dirua sakelean sartuaz*). Mutilla non duzu?
- KALIXTO** (*Haserre*) Mutila? ... (*Apaleko erlojua erakutsiaz*) Zer garai den ikusten al'duk? Bederatziak dituk eta oraindik etzaidak etorri. Datorrenean zerbait zuzenik egingo ba'lu, gaitzerdi...
- IZPER** Elkarren antzeko nagusi-morroiak zagozte, beraz.
- KALIXTO** (*Mahaiean dagoen mailua hartu eta jasorik*). Aldegin hezak hemendik... honoko honekin ematea nahi ez ba'duk...
- IZPER** (*Algaraka doa*).

III

- KALIXTO** (*Betaurrekoak ipini eta albistaria irakurtzen ariko da*).
- PELLO** (*Ozta-ozta sartzen zaion txapela du buruan eta ogi-erdi bat galtzarbean, hamarretakoa egiteko. Astiro eta lasai dator*).
- KALIXTO** (*Betaurrekoen gainetik begira*). Zer garai den bai al'dakik?
- PELLO** (*Esku-muturrean duen ordulariari begira*). Zortzirak.
- KALIXTO** Zortzirak, beraz? (*Apaleko erlojua erakutsiaz*). Ikusten al'duk hori?
- PELLO** Zer?
- KALIXTO** Hi haiz lasaka-poto, hi! Zer ordu da hor?
- PELLO** Bederatziak, hor. (*Bere erlojuari begira*). Erloju hori oker dago, Kalixto.
- KALIXTO** Hi okertuko haut, berehala lanari ekiten ez badiok...

- PELLO** Zertan hasi behar dut?
- KALIXTO** Bibolina jotzen ezin hasiko haiz, noski. (*Alboan dagoen aulkia erakutsiaz*). Jar hadi hemen eta ekiok lanari.
- PELLO** (*Hamarretakoa apalean utzi eta jar bedi aulkian, aurremantala jantzi ondoren*).
- KALIXTO** (*Oinetako pare bat emango dio Pello'ri*). Tajutu hitzak hoiek.
- PELLO** Zer egin behar zaie?
- KALIXTO** Zoru-ertzak askatuak dituztela ez al'duk ikusten? (*Albistaria irakurtzen jarraituko du*).
- PELLO** (*Oinetako bati iltzeak sartzen hasiko da, mailuka... Une batean hontan ari eta Kalixto irakurtzen ari den albistariari zehar-begiraka*).
- KALIXTO** (*Betaurrekoen gainetik Pello'ri begira*). Zer...?
- PELLO** (*Lanean, berriro*). Ezer ez.
- KALIXTO** (*Irakurtzen*).
- PELLO** (*Albistariari begira nahi lioke bainan Kalixto ez dago lo, eta mailuketan egin behar*). Bion lanak nik egin behar al'ditut?
- KALIXTO** Kaiku lotsagabea!!! Ordu-bete beranduago etorri eta mar-marrean ari haiz? Egitzak hire lanak eta egingo dizkiat nik nereak. Asteroko lan-saria nork ematen dik?
- PELLO** Ederra, zuk ematen didazun sari hori...
- KALIXTO** Hire lanaren din baduk eta beste lan-toki hobeagoren bat aurkitzen baduk, bahoake, nahi dukanean. Nundik norako kertena da hau, ordea? Izperringiari begiratutxo bat ematen ere utzi nahi ez, ni nagusia izanik...

IV

LEHENGOAK ETA ANTTONI

- ANTTONI** *(Lurrontzitxoak dakar esku batean eta ogi-zatia bestean, Kalixto'k hamarretakoa egin dezan). Hona, hire hamarretakoa, seme.*
- KALIXTO** Ongi da, ama; utz ezazu, hortxe, apalean.
- ANTTONI** Hamarretakoa ekarri al'duk, Pello?
- KALIXTO** Hamarretakoa, horrek? Oraintxe etortzea egin du-ta.
- ANTTONI** Ixilik hago! Hik merezi ez bezalako mutila duk hau. *(Kalixto'ri).* Ardorik bai al'duk?
- KALIXTO** Bai. Badut, oraindik, zatoan.
- ANTTONI** Gero jetxiko nauk lurrontziaren bila.
- KALIXTO** Ez, ama; Pello'k eramango dizu.
- PELLO** Eramango dizut, bai, Anttoni.
- ANTTONI** Gero arte, bada. *(Eskubiko atetik doa).*
- KALIXTO** Bai.
- PELLO** Gero arte, Anttoni.

V

KALIXTO ETA PELLO

- KALIXTO** *(Albistaria utzi, eskuak galtza-ipurdian igortzi eta mahaicain ipiniko ditu amak ekarri dizkion lurrontzi eta ogia. Berehala hasiko da hamarretakoa egiten, ogi-zatiarekin jakia lurrontzitik atera eta ahora eramanaz).*
- PELLO** *(Apalean utzi duen hamarretakoa hartzera doa hau ere. Ogi-artean zer dagoen begiratu eta hozkaka hasiko da, bere aulkian jarririk).*

- KALIXTO** (*Ahoa jabez betearckin mintzatuko da*). Itoko haiz, mutil, horrenbesteko puskak sartzen badituk.
- PELLO** (*Betea du ahoa, honek ere*). Larri zabiltz zu ere...
- KALIXTO** (*Mahaipetik zatoa atera eta zurrut egingo dio*).
- PELLO** (*Begiak irteteko zorian egongo da, Kalixto'ri begira*).
- KALIXTO** (*Zatoa mahaipetan utzirik*). Ño... bikaina zegok...
- PELLO** (*Zatoa har beza mahaipetik eta edaten hasi*).
- KALIXTO** (*Zatoa kenduko dio*). Hiretik edan zak, edan nahi baduk. (*Beste zurrut bat egingo du*). *Hau duk mama, hau!!! (Jaten jarrai beza)*. Lanean hasi hadi, mutil!!!
- PELLO** (*Ogia erakutsiaz*) Hau jatean hasiko naiz.
- KALIXTO** Pixka baterako bahago, beraz.

VI LEHENGOAK ETA SATURDIÑA

- SATURDIÑA** Egun on.
- KALIXTO** (*Aho betearckin hitzeginaz*). Bai zuri ere.
- SATURDIÑA** Zer???
- KALIXTO** (*Ahokoa irentsiaz*). Bai zuri ere, esan dizut.
- SATURDIÑA** Lehen ere entzungo nizun, horrela esan bazenidan. Konpon al'dituzu nere oinetakoak?
- KALIXTO** Ez, bada. Buruz-gain dugu lana eta zure hoiekin ez gera hasi, oraindik.
- SATURDIÑA** (*Haserre*). Buruz-gain izango duzu lana, berriro ere, ezer egiten ez baduzu... Jaten aurkitzen zaituet, natorren bakoi-tzean. Jaten eta edaten.

- PELLO** Edaten? Nik ez asko...
- KALIXTO** (*Zatoari zurrut*). Nahi-ta nahiezkoak ditugu jana eta edana, Saturdiña, langileok batez ere. Jar zaite aulki hortan eta berehala egingo dugu zure hoiekikoa, hamarretakoa amaitzean.
- SATURDIÑA** (*Aulkian jar bedi*). Hiru egun dire oinetakoak ekarririk eta oraindik ezertan hasteke...
- KALIXTO** Zagoz hortxe, eder hori, berehalaxe egingo ditugu-ta. Honoko honek zerbait egingo baliket... Neroni nola-halakoa naizelarik, ordea, partza bainan alferragoa dut laguna...
- PELLO** (*Kalixto'ri zehar-begiratu bat eginik, jaten jarraituko du*).
- SATURDIÑA** Bai, bai... Mutilari aitzakiak ezarri... Zozoak ipurbeltza belcari...
- KALIXTO** Senar-gairik bai al'duzu?
- SATURDIÑA** Senar-gairik ez dut, ez.
- PELLO** (*Zatoari luzatuko dio eskua bainan ostikoz atzeraraziko dio Kalixtok*).
- KALIXTO** Senar-gairik ez, beraz?
- SATURDIÑA** Ez.
- KALIXTO** Gazteago banintz...
- SATURDIÑA** Zer egingo zenuke?
- KALIXTO** Neroni saiatuko nintzakela, alegia, zu niganatzen...
- PELLO** Ja... ja... ja...
- KALIXTO** Nori egiten diok far, hortz-haundi horrek?
- PELLO** Zuri. San Pedro baino zaharrago zera ta neska-usaiean zabiltz?
- SATURDIÑA** Ez duk gezurra. (*Farrez*). Sofia Loren edo horrelakoren bat beharko likek honek.

- KALIXTO** Sopia hori nor da?
- PELLO** (*Farrez*) Zera... Ingalterra-ko erreginarenen alaba gazteena. Ja... ja... ja...
- KALIXTO** (*Mailua jasoaz*) Txapel txiki hortan emango diat, isilik ez bahago.
- SATURDIÑA** Goseak hilko zenuke zuk emaztea, Kalixto.
- PELLO** (*Mahi-peko zatoari begira*) Goseak eta... egarriak.
- KALIXTO** Horri begira al hago? Noiz hasi behar duk lanean?
- PELLO** (*Ogia erakutsiaz*) Ia bukatu dut.
- KALIXTO** (*Amaitu du hamarretakoa eta apalera doa ontzia uztera*).
- PELLO** (*Zurrut egingo dio zatoari, Kalixto apalera doan bitartean*).
- KALIXTO** (*Apaletik oinetako bi hartu eta Saturdiñari erakutsiaz*) Hauek al dire zureak?
- SATURDIÑA** Hoiek al diren galdezka zatozkit orain? Zazpi azal badituzu aurpegian.
- PELLO** Eta gogorrak zazpirak. Horren azalarekin ezarritako zoru erdirik ez litzake urratuko, ez.
- KALIXTO** (*Bere aulkira doa*).
- SATURDIÑA** Arin-arin zabiltz, Kalixto; luzaroan egoterik ez dut.
- KALIXTO** (*Oinetakoeri mailuka*) Hau bezain leku atseginik non aurki behar duzu? Bi prakadun, eta...
- SATURDIÑA** Prakadun beharrik ez dut.
- KALIXTO** Je... Helduko zenioke bai, gogokorik baletorkizu... Gogor heldu ere...
- SATURDIÑA** Zuri ez, beintzat, egos-gogor horri.

PELLO	Ja... ja... ja...
KALIXTO	<i>(Pellori)</i> Isilik hago, astaputza!
SATURDIÑA	Zuk egon behar duzu isilik, zuk!
KALIXTO	Ño... Zu zera matxardina, zu... Zerbaitegaitik zagoz neskazar, bai.
SATURDIÑA	Aizu! hogeitamar ez ditut oraindik eta neskazar usairik ez dut. Zu bai mutilzarra, anka-okor hori!
PELLO	Ja... ja... ja...
KALIXTO	<i>(Begiratu zorrotza egingo dio Pello'ri).</i>
SATURDIÑA	Buka al dituzu ala ez?
KALIXTO	Bai, pertxenta, bai; bukatu ditut. Tori.
SATURDIÑA	<i>(Oinetakoak hartu eta begira)</i> Zer da hau, ordea?
KALIXTO	Zer gero?
SATURDIÑA	Zer egin duzun bai al'dakizu?
KALIXTO	Oinetakoak konpondu.
SATURDIÑA	Konpondu, diozu, konpondu? Nere oinetako gaixoak... Azpitik sartu eta gainetik atera dizkietzu nere behatza hainbateko iltzeak.
KALIXTO	Azpitik sartu eta gainetik atera? Gainetik sartu eta azpitik ateratzea nahi al'zenuen?
SATURDIÑA	Oina nondik sar behar dut, gaineko larrua zoruari josi badiozu?
KALIXTO	Ez larritu, Saturdina; bereala zuzenduko diet hori. Emaiz-kidatzu.
SATURDIÑA	Gezurrak irten dizu... Nere oinetakorik ez duzu, berriz, zure atzapar baldar hoietan hartuko...

-
- PELLO** Ja... ja... ja...
- KALIXTO** *(Mailua hartu eta Pello'ren buru gainean jasorik duen unean agertuko da On Toribio).*

VII

LEHENGOAK ETA ON TORIBIO

- TORIBIO** *(Atetik)* Geldi. Kalixto, geldi!!!
- SATURDIÑA** *(Laisterka aldegingo du, ikaraturik).*
- KALIXTO** *(Atera doa laisterka eta errenka)* E... Saturdiña... Ez didazula ordaindu...
- TORIBIO** Zer egin dik Pello'k?
- PELLO** Ezer ez.
- KALIXTO** Nazka-nazka egin nau oraintxe, bere ja-ja ta je-je egin beharrarekin.
- TORIBIO** Ja-ja ta je-je egiteagaitik al habil horrela?
- KALIXTO** Bai, eta muinetaraino sartuko nion mailua, zu etorri ez ba zinen, On Toribio.
- TORIBIO** Gizona, gizona... Ja-ja ta je-je egiten badik, jo-jo ta ju-ju egiok eta kito. Gizatasun gehiago behar dik, hire adinean batez ere eta elkarren hutsegiteak barkatzen jakin. Albistaria non duk?
- KALIXTO** Betiko lekuan On Toribio.
- TORIBIO** *(Apalera doa izperringia hartzera eta jazkera laburdun egutegia ikusiko du)* Aitaren, Semcaren...
- KALIXTO** Zer duzu, On Toribio?

-
- TORIBIO** *(Egutegiari begira)* Aitaren, Semearen... *(Pello'ri)* Lizunkeri hau nork ipini du?
- PELLO** Nik ez.
- TORIBIO** *(Kalixto'ri)* Hik?
- KALIXTO** Nik ipini dut, bai, gaur goizean. Txarrik zer du horrek?
- TORIBIO** Buru haundi hortatik ongi ez hago hi.
- PELLO** Ja... ja... ja...
- KALIXTO** *(Begiratu zorrotza Pello'ri).*
- TORIBIO** Narraskeri hauekin al'habil, zahartu ondoren?
- KALIXTO** Narraskeria? Guri eta legun askoa dago hori, On Toribio.
- TORIBIO** Lotsatzen nauk, Kalixto, lotsatzen nauk.
- KALIXTO** Zer dala-ta?
- TORIBIO** Ilero nere aitorlekuan belaunikatzen den bat honelako zikinkeriekin atsegintzea, lotsagarria duk neretzat.
- PELLO** Itxurak egiten ditu honek, On Toribio, itxurak. Hemen ikus behar du hau, hemen.
- TORIBIO** Benetako kristauaren jokabidea berdin-berdina behar dik izan, bai elizan, bai etxean eta ardandegian.
- KALIXTO** Ezta ikaragarritzko txarkeriren bat egin izan banu ere...
- TORIBIO** Okerra, okerra duk, beti eta edonun.
- PELLO** Honen anka bezela...
- KALIXTO** Antzinako ohitura eta zera haiek joan ziren pikutara.
- TORIBIO** Hi haiz gibel-urdina, hi!!!

-
- KALIXTO** Apaizak ere, etxetik eleizara eta eleizatik etxerako bidetik etziren irteten, lehen; eta orain... gona luzeak kendu, ile luzeak utzi... bizarrak ere bai, eta...
- TORIBIO** Garaiean garaiko belarrak ernetzen dituk, Kalixto.
- KALIXTO** Hori bada, hori... Garaiean garaiko belarrak. (*Egutegia erakutsiaz*) Horroko hori bezela...
- TORIBIO** Belar txarrak ere izan ohi dituk, ordea.
- KALIXTO** Bai horixe!!! Barrabas-belarra ugaria izan ohi da. Apaizen artean ere bada, gero, barrabasik...
- TORIBIO** Apaizok ere gizonak gaituk, Kalixto.
- KALIXTO** Gizonak, noski; horregaitik ezkontzen dire, asko ta asko.
- TORIBIO** Guzion egile den hark neurtuko dizkik nere, hire eta guztion egintzak eta gu ez gaituk nor inoren bideak harresiz itxitzeko, eztere epaitzeko.
- KALIXTO** Bai, bai... Ate guztientzat maratilak badituzu, On Toribio. Apaiz asko, ordea, ezkontzen direla ez didazu ukatuko, noski.
- TORIBIO** Hala duk bainan hik eta nik erabiltzeko gaiak ez dituk hauek.
- KALIXTO** Ez, ez; oinetakoak konpontzen bestetan ez dakit nik.
- PELLO** Oinetakoak konpontzen? Arestian joan den Saturdiña'ri galdegin behar...
- KALIXTO** (*Begiratu gaiztoa egingo dio Pello'ri*). (*Isil-une batean, albistaria irakurtzen ariko da On Toribio*).
- KALIXTO** Hori da ezkon beharra, hori!!! Hemen nago, bada, ni mutiltzar...

- TORIBIO** Hagon bezala egoteko hobea haiz hi. Gaztearoan saia gabez ez, ordea, aditzera dutanez.
- PELLO** *(Entzuten dago, lanari utzirik).*
- KALIXTO** Jarria zak lanean.
- TORIBIO** Hamalau urtez eduki ukan, Maritxu gaixoa, hiri begira.
- PELLO** Hamalau urtez? Hau da zartaririk gabeko kertena, hau!!!
- KALIXTO** Apaiz egin izan banintz, gaztetan...
- TORIBIO** Orduan ere izango ukan zer esana.
- KALIXTO** Zuek bizi zerate, zuek!!! Goizean ordu-erdiko mezatxoa eta kaixo mutil... Beste lanik ez... Kotxea atarian eta non gogoa han zangoa...
- TORIBIO** Hori duk zirika beharra, hori... Zer jan duk, gaur?
- KALIXTO** Gibela, On Toribio; gibelarekin egin dut Hamarretakoa.
- TORIBIO** Txarra ez duk. Oraindik baraua hautsi gabe egoteko ona hago, ni bezela.
- KALIXTO** Jan behar haundirik ere ez du lanik egiten ez duenak, On Toribio.
- TORIBIO** Mailuz lau iltze sartzea duk hire lana. Hik uste bezain leguna eta erraza balitz apaizon bizikera, gertatzen direnak ez hituzkek gertatuko, Kalixto. Guztiontzat zegok gurutzea lur honetan. Hire gurutze hori astuna al'duk?
- PELLO** *(Farrez)* Bai, On Toribio! Honen hori astuna behar du izan.
- TORIBIO** Bai?
- PELLO** Bai. Horregaitik okertu zaio eskubiko hanka hori.
- KALIXTO** *(Mailua jasoaz)* Txirtxilaruko haut!!!

-
- TORIBIO** Geldi, Kalixto, geldi!!! Horrelakoa ez dik behar gizonak. Txantxa bati, beste txantxa batekin erantzuten zaiok.
- KALIXTO** Zergaitik sartzen da hori nere anka honekin?
- TORIBIO** Nolaz egin hukan hori, Kalixto?
- KALIXTO** Hozka egin zidan zakur batek, gazte-aroan.
- PELLO** Neska-laguntzera joan omen zen gabaz eta ateko zakurrak hozka... Ja... ja... ja...
- TORIBIO** Neska-laguntzera joanda, beraz? Harritzekoa duk... neska-kontua besterik ez duk, hitzetik-hortz eta mutiltzar gelditu hintzan, bada...
- KALIXTO** Ezkonduak ere nahiko lanakin ikusten dire, On Toribio. Haurrak hazi, nekeak bizi eta azkenean, erruki-etxera, asko eta asko.
- TORIBIO** Ezkon-gabeak arrisku larriagoa dik erruki-etxera joateko...
- KALIXTO** Bai, hala da. Umeak hazitzen eta emaztea mantentzen jasan behar direnak jasan gaberik, ordean, joango naiz ni, joaten banaiz...
- TORIBIO** Hi haiz egos-gogorra... Ikasbide ederrak ari haiz ematen alboko gazte horri... Berehala bukatuko hukek mundu hau, Kalixto, guztiak hire antzeko balira. Eta, hire antzeko asko zegok gure herrian. Hemen hainbat mutiltzar ifiun ez diat ezagutu.
- KALIXTO** Gu mutiltzarron hutsunea betetzearren ariko dira, beraz, apaizak ezkontzen?
- TORIBIO** Hortara hoa, orain ere... (*Eskuan duen izperringia apalean utzi eta horman dagoen egutegiari begira*). Zikinkeria hau ken behar duk, Kalixto, ni bihar natorrenerako.
- KALIXTO** Zikinkeria? Lurreko izaki guztiak Jainkoak eginak direla, zerorreri entzun izan dizut, mila bider.
- TORIBIO** Halaxen duk.

-
- KALIXTO** Beraz... zikinkeriarik egin ahal dezake Jainkoak?
- TORIBIO** Ez. Bera edertasun hutsa delarik, Jainkoak ez zezakek edertasuna besterik egin. Guk, gizonok zikintzen dizkiagu Jainkoak egin dituen edertasunak.
- KALIXTO** Azkarragoa zinela uste nuen, On Toribio.
- TORIBIO** Bai?
- KALIXTO** Bai. Jainkoak edertasuna besterik egin ez badeza (*Egutegiari begira*) eta guk zikindu Hark eginiko edertasunak... Horrek ez dauka zikinkerik haundirik... Jainkoak eginda bezalaxe dago, ia-ia... edertasun guztiak agerian dituelarik. Beraz, zertarako zikindu edertasun hoiek?
- TORIBIO** Gezurra zirudik, Kalixto; hik izan dukan heziketa izan eta horrelako urdekerietan nahastea...
- PELLO** Guztia bazeneki...
- KALIXTO** Isilik hago, hi!!!
- TORIBIO** Hori hortik kentzen ez baduk, egundo ez nauk etxe hontan ikusiko.
- KALIXTO** Itzuliko zera, bai, On Toribio... Izperringia non irakurriko duzu, etortzen ez bazera?
- TORIBIO** Egunoro uzten zidatek neri izperringia etxean. Entzun? (*Irten bedi*).

VIII

KALIXTO ETA PELLO

- KALIXTO** *(On Toribio irten den alderuntz begira)* Ja... ja... ja... Zearo hasarratu zaiguk On Toribio.
- PELLO** Nor ez hasarratu zurekin? Liztorrarena baino zorrotzagoa duzu miztoa. Zula ta zula, iñor nazka-nazka egin artean... Apaizik ere ez duzu errespetatzen!
- KALIXTO** Ni baino gehiago al duk, bada, hori?
- PELLO** Lotsagabekeria ez. Herrian dugun gizonik jakintsu eta jatorrenarekin berdinka nahi al'duzu, inguruetakoa saltsa guztien lapiko besterik ez zeran hori?
- KALIXTO** Saltsa-lapiko ni? Neurtu, gero, hitzak. Urte bi hauetan higan zer gertatu den etzekiat, mutil. Alfer eta kaskailu bat besterik ez haiz, lehen gazte argi eta leial hintzan hori.
- PELLO** Nolako jaun, halako mirabe, Kalixto. Morroi onik ez da nagusi txarrantzat. Zuk erantsitako arabakiak ditut alferkeria eta kaskailukeria. Marrubi-opil bihurtzea nahi al'zenuke, zuk eman didazun bekorotzaren truk? Ez, Kalixto, ez... Zazpi urte hauetan zuk egin nauzun bezalakoa nauzu.
- KALIXTO** *(Hitz-beste eginaz)* Buka al'dituk hoiek?
- PELLO** Bai.
- KALIXTO** Ia... *(Pello'k emango diozkan oinetakoak harturik)* Belaun-harriz legundu hitzak ertz hoiek.

IX

LEHENGOAK ETA KOLDO

- KOLDO** *(Azkar-azkarra ez dirudi)* Kaixo, Kalixto... Zer diok, Pello?
- KALIXTO** Zer habil, Koldo?
- KOLDO** Lantxo bat egingo al'hidakek, Pello?
- KALIXTO** Nagusia nor da hemen?
- KOLDO** Zu nagusia, noski, bainan...
- KALIXTO** Zer bainan eta zer bainon... Zer nahi duk?
- KOLDO** Ehizerako gerriko bat nahi nuke.
- KALIXTO** Gerrikoa, e?
- KOLDO** Bai; kartutxo-huel edo gerriko dotore bat nahi dut.
- KALIXTO** Ederrak badizkiat eginak.
- KOLDO** Zenbatean egingo zenidake?
- KALIXTO** Etzekiat, bada. Bi mila pezetaz behetik, behintzat.
- KOLDO** Bi mila pezeta? Mila pezetan egin zion Pellok, oraindik-orain, nere adiskide bati.
- KALIXTO** Pello'k? Non egin hukan?
- PELLO** Etxean.
- KALIXTO** Neri ostutako narruarekin, noski.
- PELLO** Zuri ez dizut ezer lapurtu.
- KOLDO** Egingo al'didazu ala ez?
- KALIXTO** Mila ta bostehun pezetan egingo diat.

- KOLDO** Horrek baino bostehun pezeta gehiago, zuk?
- KALIXTO** Lapurtutako narruarekin errez egiten dik horrek... Mila pezetan egingo diat, bada.
- KOLDO** Noizko?
- KALIXTO** Etzirako egina izango duk.
- KOLDO** Etzirako, beraz. (*Ateruntz doa*).
- KALIXTO** Nora hoa?
- KOLDO** Zer ajola zuri?
- KALIXTO** Neurria hartu behar diat, ordea. (*Galartzu bat hartu eta Koldo'gana doa*). Herrian dan gerrikorik ederrena egingo diat. (*Neurria hartu eta korapilo bat egingo dio galartzuari*) Neska guztiak hire gerrikoari begira izango dituk, Koldo.
- KOLDO** Neri begiratzea nahi nuke, ez gerrikoari.
- KALIXTO** Bai-ta hiri ere... Emazte-gairik bai al'duk?
- KOLDO** Gogoa bai...
- KALIXTO** Hitaz txoratuko litzakeen neskatz politta bazekiat non dagoen...
- KOLDO** Bai, e? Politta, gainera...
- KALIXTO** Bai, horixe!!! (*Egutegia erakutsiaz*) Horroko hori baino polittagoa.
- KOLDO** Bai? Ño... ez da aidrebesa, orduan...
- KALIXTO** Aingerua zirudik... eta... (*behatz biekin dirua adieraziz*)... hontatik asko duena.
- KOLDO** Bai, e?
- KALIXTO** Bai; alaba bakarra duk eta... lau edo bost etxe izango dizkitek bere gurasoek.

KOLDO	Ño... ez gutxi-gutxi ere.
KALIXTO	Hi hintzake aukerakoa harentzat.
KOLDO	Hala al'derizkiozu?
KALIXTO	Bai; urrezkoa zirudik bere ile oriak; marrubizkoa aurpegiak; erreondoko zuma bezain mehe eta biguna bere gerria eta... haren oin ttiki eta polittak... Maiz etortzen duk honuntza.
KOLDO	Egia al'duk hori, Pello?
PELLO	Bo... Honek hala badio...
KALIXTO	Zer dakik hik, mozolo horrek?
KOLDO	Nor dan jakin al'daiteke?
KALIXTO	Et... et... et... Nik hitzegin beharko nitek berarekin, lehen-dabizi.
KOLDO	Zergaitik?
KALIXTO	Errez harrapa nahi hukek hik amorraia... Et... et... et... Nik erbia jaso eta hik sakelean sartu? Et... et... et...
KOLDO	<i>(Ateruntz doa)</i> Jaso ezazu, bada, zerorrentzat erbi hori.
KALIXTO	Apur batean hago, mutil. Trato ttiki bat ez ahal genezakek egin?
KOLDO	Zer trato?
KALIXTO	Alegia... tajuzko esku-pekoa emango bahida...
KOLDO	Esku-pekoa, beraz? Ez diru eta ez andra-gai geldi nadin!
PELLO	<i>(Zurrut egingo du zatotik, Kalixto eta Koldo jardunean dagozen bitartean).</i>
KALIXTO	Nere hitzaren jabe izango nauk, tratorik egiten badugu.
KOLDO	Ia, bada, zer trato nahi zenuken.

-
- KALIXTO** *(Oldozkor)* Gaur osteguna... *(Isil-une)* Hire besotik izango duk, datorren igandean, sei mila pezeta ematen badizkiak.
- KOLDO** Erotu al'zera, Kalixto?
- PELLO** Hi bai erotuko hau horrek.
- KALIXTO** Erdia orain eta neskatx zoragarri hura higanatzean beste erdia. Nere lanak izango dizkiat nik ere, hiri bideak irikitzen.
- KOLDO** Eta, biderik ez baduzu irikitzen, zer? Hiru mila pezeta gabe, ni...
- KALIXTO** "Arrixka la fortuna" esan ohi zikan nere aitona zanak eta horrelako etorkizunaren jabe egin daiteken batentzat ez duk ezer asko...
- KOLDO** Ez, ez... Herri guztiaren farragarri nere burua ez dut ipini nahi.
- KALIXTO** Hik egingo diok farra herri guztiari, hik.
- KOLDO** Zer derizkiok, Pello?
- PELLO** Hor konpon!!!
- KOLDO** Eta, ezezkoa balitz, zer?
- KALIXTO** Nik nerea egingo diat; gerokoak hik egin behar dituk. Gaurko neska buru-arinak berehalaxe txoratzen dituk, mutil. Hitz bat edo bi potxolo xamarak eta kito; gaztanbera bezain guri ipintzen dituk.
- KOLDO** Honenbeste aholku eta jakinduri baduzu besterentzat eta mutiltzar nolaz gelditu zinan?
- KALIXTO** Lotsatia izan nauk beti-ta...
- PELLO** *(Berekiko)* Bai; zorria bezain lotsatia.
- KOLDO** Eta, hiru mila pezetako hori noiz eman behar ditzut?
- KALIXTO** Oraintxe bertan; gerorako uzten den hura, badakik...

-
- KOLDO** *(Dirua atercaz)* Tori hiru mila pezeta bainan argi ibili... Lepoa bigurrituko dizut, txerrikeriren bat egiten badidazu...
- KALIXTO** *(Dirua sakelean sartuaz)* Larunbatean emango dizkiat berriak, gerrikoaren bila hatorrenean. *(Farrez)* Gerriko berria, emaztegai aberatsa... eta... edonork joko dik adarra, datorren igandean...
- KOLDO** Ja... ja... ja... Hik ere badakik, Pello; diruak erakartzen dik dirua...
- KALIXTO** Ja... ja... ja... Eztaietara gonbidatuko nauk, noski?
- KOLDO** Ja... ja... ja... Larunbatean hemen izango nauzu, Kalixto *(Irten bedi)*.

X KALIXTO ETA PELLO

- PELLO** Inozo ugari baduk, oraindik, munduan...
- KALIXTO** Hi bat, galanta.
- PELLO** Inozoa izango naiz bainan neri ez didazu hiru mila pezetakorik lapurtuko, ez.
- KALIXTO** Hiru ez; sei mila, Pello, sei mila... Honelako negozioirik...
- PELLO** Honelako negozioak badituzu eginak, lehen ere... Buruz osatutako mutila balitz, ezer ez.
- KALIXTO** Buruz osatutakoari sei mila pezeta kentzerik etzegok, Pello. Ja... ja... ja...
- PELLO** Begiz joa al'duzu neskatxen bat?
- KALIXTO** Oraindik ez bainan bururatuko zaidak norbait...
- PELLO** Koldo'ri esan diozun ile hori, begi urdin eta lau edo bost etxeren jabe den hori, nor duzu, bada?
- KALIXTO** Ja... ja... ja... Lau edo bost etxeren jabe den neskatxak Koldo

- PELLO** Gezurra esan diozu, beraz?
- KALIXTO** Zerbait esan behar eta esan... Zerbait emango nitek hiri ere, lagunduko bahidakek.
- PELLO** Narratskeri hoiekin nere bururik ez dut kutsutu nahi, Kalixto.
- KALIXTO** Inortxo etzaidak bururatzen... (*Oldozkor*) Gaur osteguna... (*Narruzko mantala kenduko du*) Gaurko eta biharko egunak badizkiat oraindik eta larunbaterako zerbait egingo diat. Lanean jarrai zak hik; berehala etorriko nauk ni.
- PELLO** Nora zoaz?
- KALIXTO** Kitarra joaz dantzara banoake ere, zer hiri?
- PELLO** Iaioa zu, dantzaria, anka oker horrekin.
- KALIXTO** Ja... ja... ja... Aldarte bikaina diat gaur, Pello.
- PELLO** Nun zerala esango diot, inork zutaz galdetzen badit?
- KALIXTO** Goiko tabernan izango nauk.
- PELLO** Uztargilenean?
- KALIXTO** Bai. Bermu batzu har behar dizkiat Koldoren kontura. (*Oldozkor*) Uztargilenean... (*Burua joaz*) Buru haundia, ni... Nolaz lehenago etzait gogora...
- PELLO** Zer?
- KALIXTO** Uztargilenean... hantxe zegok nik behar dutana...
- PELLO** Zer dago han?
- KALIXTO** Koldorentzat andra-gaia, Pello...
- PELLO** Mirentxu?
- KALIXTO** Huraxe bera, Pello!!! Alaba bakarra, gaztea, politta eta (*dirua adieraziaz*) hontatik zerbait ondo duena, gainera...

-
- PELLO** Zoazkio eta esan belar-ondoan, ia zer erantzuten dizun...
- KALIXTO** Bai horixe!!! Oraintxe bertan joango nauk (*Irten bedi errenka*).

XI

PELLO ETA GAZTEA

- GAZTEA** (*Bide-zorro edo poltsa astuna dakar eskuan. Alde oroetara begiraka sartuko da*) Kaixo...
- PELLO** Kaixo.
- GAZTEA** Bakarrik al'hago?
- PELLO** Bai.
- GAZTEA** (*Erne dago, alde guztietara begira*).
- PELLO** Gu beste inor etzegok.
- GAZTEA** (*Eskuan duen poltsa Pello'ri emanaz*) Ezkuta hezak hau.
- PELLO** Zer zegok?
- GAZTEA** Dinamita.
- PELLO** (*Izukurik*) Zertarako?
- GAZTEA** Odolkiak egiteko.
- PELLO** Odolkiak?
- GAZTEA** Ezkuta hezak hori, lehenbaitlen.
- PELLO** (*Eskubiko atetik doa poltsarekin*).
- GAZTEA** (*Zigarroa piztuko du*).
- PELLO** (*Eskubiko atetik*) Zer egin behar diat poltsa horrekin?

-
- GAZTEA** Saldu.
- PELLO** Poltsa?
- GAZTEA** Poltsa ez, poltsan dagoena, baizik.
- PELLO** Non lapurtu duk hori?
- GAZTEA** Batean edo bestean, zer ajola? Sal hezak eta hartzen dukanaren erdia neri eman eta kito.
- PELLO** Laugarren aldiz egiten duk horixe bera eta aspertu nauk, oraintxe.
- GAZTEA** Gaizkitxo habil... Ni arriskuan ibili eta irabaziak erdibana... Hori duk negozioa, hori!!!
- PELLO** Beldur nauk... Nora goazken badakik...
- GAZTEA** Isilik hago, oilo hori.
- PELLO** Azkenekoa izango duk oraingo hau.
- GAZTEA** Uztargilenean izango nauk datorren igandean.
- PELLO** Zer garaitan?
- GAZTEA** Arratsean.
- PELLO** Han izango nauk.
- GAZTEA** Igande arte. *(Irten bedi)*.
- PELLO** *(Esku biak sakelean sartu eta buru-makur egongo da une batean. Bere aulkira doa, gero eta zurrut egingo du zatotik eta lanean hasi)*.

XII

PELLO ETA ANTTONI

- ANTTONI** *(Eskubiko atetik)* Kaixo, Pello. Kalixto ez al'duk hemen?
- PELLO** Ez: arestian irten da.

-
- ANTTONI** Nora joan ote da?
- PELLO** Goiko trabenara doala, esan du.
- ANTTONI** Trabenara... beti trabenara... (*Kalixto'k apalean utzi duen lurrontzitxo hartzera doa eta horman dagoen egutegia ikusten du*) Zer da hau?
- PELLO** Zer?
- ANTTONI** Isekirik dagoen likitskeri hau.
- PELLO** Egutegia da hori, Anttoni.
- ANTTONI** Hik ipini al'duk?
- PELLO** Ez. Kalixto'k ipini du.
- ANTTONI** Mutiltzar txerria!!! Nik konponduko diat hura!!!
- PELLO** On Toribio ere erabat hasarra zaio, hori hor ikustean.
- ANTTONI** Txerria lastotan erretzen den bezala erreko nizkikek honelako emakumeak.
- PELLO** Ja... ja... ja... Kalixto'k apaizari zer esan dion bai al'dakizu?
- ANTTONI** Edozer, hark.
- PELLO** Agerian erabiltzeko omen direla Jainkoak egin dituen edertasunak, ez ezkutuan.
- ANTTONI** Urde alena!!! Emazte bat etxeratzeko din ez duk eta hau hemen ipini... (*Egutegia hartu, lau zati egin eta lurrera jaurtiko du*).
- PELLO** Atsegin izango da, gaur, Kalixto'rekin...
- ANTTONI** Atsegin? Lau eta lau zenbat diren nik erakutsiko ziot Kalixto'ri.
- PELLO** Horrelakoak nun-nahi ikusten dire gaur, Anttoni. Nabarmenagoak ere bai.

ANTTONI Nere etxean ez, bada!! Oinetarainoko gonak erabiltzen genizkian nere gaztearoan. Apurka-apurka, ordea, laburtzen joan dituk eta orain... Behko ertza goraka eta goikoa beheraka, horra, zenbateraino laburtu diren gaurko emakume latsa-galduen jazkerak.

PELLO Adan eta Eba ere bilutsik egin omen zituen Jainkoak.

ANTTONI Jainkoak horrelakorik etzezakek egin, Pello.

XIII

LEHENGOAK ETA PELLO

KALIXTO *(Ezkerreko atetik)* Zer zabiltz hemen, ama?

ANTTONI Etorri al'haiz likits hori?

KALIXTO *(Egutegia zatitua ikusiko du lurrean eta lehen horman zegoen lekura begiratu du)* Egutegi hori nork hautsi du?

ANTTONI Nik hautsi diat eta zer?

KALIXTO Zergaitik, ordea?

ANTTONI Zergaitik, diok, likits horrek? Erorri hautsiko hinduket umea bahintz.

KALIXTO *(Egutegiaren zatiak lurretik jasoaz)* Zer du honek, ama?

ANTTONI Ezer ez; ezer ez dik horrek, soinean behintzat. Ni horrela bilutsik ikusiko banindukek, zer esango ukek?

KALIXTO Zu zaharra zera, ordea, ama.

ANTTONI *(Kalixto'ri egutegia kendu eta bil-bil egingo du. Apaletik lurrontzia hartu eta irten bedi, eskubiko atetik. Berehala agertuko da, berriro)* Ate-atzeko poltsa haundi hori nork utzi du hor?

KALIXTO Zer poltsa, gero?

PELLO *(Larri)* Nik utzi dut, Anttoni

ANTONI Katua hor zebilek, usaika. (*Ezkuta bedi*).

XIV KALIXTO ETA PELLO

KALIXTO (*Mantala jantzi, aulkian jarri eta lanean hasiko da. Gero, mahai-peko zatoa hartu eta astindu beza, belar-ondoan*).

PELLO (*Farrez*) Preskatzen ari al'zera?

KALIXTO Hi preskatuko hinduket, nik. (*Utz beza zatoa*) Ttanttirik ere ez duk utzi.

PELLO Nik?

KALIXTO Ate-ondoan zegoen gazte hura nor duk?

PELLO Ate-ondoan?

KALIXTO Hire galdezka, bai, ate-ondoan, poltsa haundi batekin.

PELLO Inor ez dut nik ikusi. (*Hitz-beste eginaz*) Mirentxurekin mintza al'zera?

KALIXTO Bai.

PELLO Eta?

KALIXTO Poto egin zidak.

PELLO Zer esan dizu?

KALIXTO Zer ajola dik hiri?

PELLO Ajolarik ez bainan... (*Isil-une*) Beste batengana jo beharko duzu.

KALIXTO Errez esan duk...

PELLO Zuk bai errez esan diozula Koldo'ri... (*Farrez*) Zure hiru mila pezetakoa...

-
- KALIXTO** Zer?
- PELLO** Koldo'ren sakelera itzuliko dela, alegia...
- KALIXTO** Gezurrak irten dik... (*Sakeletik dirua atereaz*) Hauek ikusteko beharko dik, lertzen bada ere...
- PELLO** (*Erlojuari begira*) Lanari uzteko garaia dugu, oraintxe.
- KALIXTO** Lanari utzi? Hasi al'haiz?
- PELLO** (*Berekiko*) Nola aterako ote nuke poltsa hori?
- KALIXTO** Marmarrean ari al'haiz?
- PELLO** (*Zutitu bedi*).
- KALIXTO** Nora hoa?
- PELLO** Eskuak garbitzera. (*Irten bedi eskubiko atetik*).
- KALIXTO** Eskuak garbitzera... (*Bururari eraginaz*).
- PELLO** (*Ezkututik*) Kalixto!!!
- KALIXTO** Zer?
- PELLO** Sukalderaino igotzeko, dio zure amak.
- KALIXTO** (*Berekiko*) Sermoiren bat badiagu, orain ere. (*Pellori*) Bai!!! (*Irten bedi ezker aldetik*).
- PELLO** (*Kalixto irten bezain laister agertuko da poltsa eskuan duelarik; soinean duen aurre-mantala mahai-gainean utzi eta irten bedi, arin-arin*).
- KALIXTO** (*Ezkututik*). Pello!!! Pello!!! (*Atean*) Hire amonari jo adarra, jo nahi badiok, ez neri!!! (*Alde oroetara begira*) Non haiz? (*Oldozkor*) Poltsa hori... (*Ate atzean begira beza*) Non da poltsa hori? (*Ezkerreko atetik begira*) Non ikusi dut nik poltsa hori? (*Eskubi-aldera astiro-astiro doanean, itxi bedi OIHALA*).

BIGARREN EKITALDIA

(Ardandegi bat izango da ekitaldi honetako jokalekua. Mahai bat eskubian eta beste bat ezkerrean, euren aulkiekin. Sal-mahaia erdian.)

I

MIRENTXU BAKARRIK

MIRENTXU *(Bazterrak txukuntzen ari da, zerbait abestuz, andereño lirain hau).*

II

MIRENTXU, TXOMIN ETA JOXE

(Alai eta zaratatsu datoz gazte biak).

TXOMIN Kaixo, Mirentxu.

JOXE Bakarrik al'zagoz poxpolin politt hori?

MIRENTXU Bakarrik nago, bai.

JOXE Kopatxo bana aterako al'diguzu?

MIRENTXU Nolakoa nahi duzute?

TXOMIN Gorria, Mirentxu, gorria; gorri-zaleak gera.

JOXE Ja... ja... ja... Gorria behar dugu, bai.

MIRENTXU *(Ipini bitza kopa bi sal-mahai gainean eta erdiraino bete).*

-
- TXOMIN** Joño... joño... Etxerik ez duzu galduko...
- MIRENTXU** Zergaitik diozu hori?
- TXOMIN** Zertarako kopa haundi hauek, pattar gehiago ez ateratzekotan?
- JOXE** Egia; titare bat aski litzake, zuk atera duzun pattar horrentzat.
- MIRENTXU** Lehendik ere baduzute barruan pattarrik aski.
- TXOMIN** Andra-gairik ez dugu, dantzan ez dakigu eta zer egin? Edan...
- JOXE** Alboan zu bezalako bana bagenu, zurrutean ez ginake ibiliko... Zuk, ordea, jaramonik ez diguzu egiten eta pattarretan itotzen ditugu gure jai-egunak.
- MIRENTXU** Saiatzen al'zerate?
- JOXE** Saiatu? Bai horixe!!! Ahaleginak egiten ditugu bainan alferrik.
- MIRENTXU** Ardoz muturra betetzen duzutenean soilki joaten zerate neskatzengana eta jakina... Begiratu ere ez diozute egiten neskatz bati, baraurik zagoztenean...
- TXOMIN** Begiratu bai...
- MIRENTXU** Zeharka, ordea.
- JOXE** Zuri ere zeharka begiratzen al'dizu beste hark?
- MIRENTXU** Nork, gero?
- TXOMIN** Begiratu bakarrik ez... Kontu-ixil ugari esaten ziotek elkarri eta... gainera gainerakoak.
- MIRENTXU** Nork, ordea?
- JOXE** Gu baino ahulagorik ez duk, Txomin.
- TXOMIN** Esango nitek... Sapai-zuloko ontza zirudik eta ikusten nola esnatzen dan...
- JOXE** Gu gaituk ontzak, gu.

- MIRENTXU** (*Farrez*) Norgaitik ari zerate, bainan?
- TXOMIN** Gu, noski, ontzak eta tonto-lapikoak.
- JOXE** Herrian dan neskari ederrena begiz-jo dik, alajaina...
- MIRENTXU** Ederragorik bada herrian, Joxe.
- JOXE** Zu baino ederragorik ez, eguzkiaren azpian, Mirentxu.
- MIRENTXU** Ja... ja... ja...
- JOXE** Ile ori, musu-gorri, gerri-mehe eta... gainera gainerakoak.
- MIRENTXU** (*Farrez*) Zoratuko nauzu, Joxe, horrelako hitz polittekin...
- TXOMIN** Horrelakorik ez al'dizu esaten beste hark?
- JOXE** Zera esango zio, eltzekondo hark... (*Mirentxu'ri zorrotz begira*) Bai politta zerala, Mirentxu... Azkazalak aterako nituzke zu neretzat izateagaitik.
- MIRENTXU** Ja... ja... ja... Noren azkazalak, bainan?
- TXOMIN** Azkazalak ez bainan atera itzatzu beste kopa bi, hauek hutsik dagoz-ta.
- JOXE** Bai politta zerala...
- MIRENTXU** (*Kopak betez*) Lehen ere esan didazu hori.
- JOXE** Anpolaiak dirudite zure begiak.
- TXOMIN** Anpolai urdinak... Ja... ja... ja...

III

LEHENGOAK ETA KALIXTO

- KALIXTO** (*Esku-makilarekin dator, errenka, eta farragarri jantzirik, lepo-kibizto eta guzti*) Arratsaldeon.
- MIRENTXU** Bai zuri ere.

KALIXTO	Txiki bat ardo aterako al'didazu?
MIRENTXU	Berehalaxe aterako dizut, Kalixto.
JOXE	Joño... Dotore zatoz, Kalixto, korbata eta guzti.
TXOMIN	Ja... ja... ja... Bai; kusoaa zirudik.
MIRENTXU	Kusoa zer da?
TXOMIN	Kusoa zer dan ez dakizu? Txori-izugarria, emakume.
KALIXTO	Hi, muki-jario; hire amonari egiok far, ez neri. <i>(Ezker aldeko mahaiaren alboko aulkian jarriko da).</i>
MIRENTXU	<i>(Txiki bat ardo eta edontzia eramango dizkio mahaira)</i> Tori, Kalixto.
TXOMIN	Lepoko kibizto hori nork ipini dizu, Kalixto?
JOXE	Ja... ja... ja... Gure esne-zalearen astoak ere horrelakoxea ibiltzen du, lepotik zintzilik.
JOXE	Ez, ez; apaina zegok mutiltzarra.
KALIXTO	Zuen lotsik ez diat.
JOXE	Ez, ez; emaztegaia ere aurkituko duzu, gaur.
MIRENTXU	Emazte-gaia? Guztia bahekikek...
JOXE	Zer?
MIRENTXU	Senar-gaia eskeintzera etorri etzitzaidan, bada, joan zan ostegunean?
TXOMIN	Hara, hara... Hori ere bai?
MIRENTXU	Bai; eta berehala nahi zuela erantzuna.
KALIXTO	Isilik egongo al'zera? <i>(Sakeletik ogi-koskor bat atera eta jaten hasiko da).</i>

-
- TXOMIN** Ezkontzak antolatzen hasi al'zera, orain? Hori duk anka-okerra, hori!!!
- KALIXTO** (*Esku-makila erakutsiaz*) Saiets-hezurak hautsiko dizkiat honoko honekin, isilik ez bahago!!!
- MIRENTXU** Nolako eginahalak egin zizkidan bazeneki...
- TXOMIN** Hori duk "saka-mantekas" hori... Laister zera parterotzan ere, Kalixto.
- KALIXTO** Hortan ere egingo nikiek hik ainean...
- JOXE** Partero txukuna hori, atzapar haundi hoiekin...
- TXOMIN** Nori deitu badakizu, Mirentxu, behartzen zeranean...
- MIRENTXU** Isilik zagozte, horrelakorik esan gabe.
- JOXE** Eskeini zizun senar-gai hori nor da?
- KALIXTO** Ez esan gero, Mirentxu!!!
- JOXE** Zergaitik ez?
- MIRENTXU** Etzenduke asmatuko, ez-ta... ez-ta...
- TXOMIN** Herritarra al'da?
- MIRENTXU** Bai.
- JOXE** Gaztea?
- MIRENTXU** Gaztea, bai.
- TXOMIN** Nor, ote?
- KALIXTO** Egongo al'zera isilik, sorgin hori?
- JOXE** Esan, esan...
- MIRENTXU** Hiru mila pezeta jasoak omen ditu.

MIRENTXU Kalixtok, alegia, mutilari emazte-gaia aurkitzeagatik...

TXOMIN Ja... ja... ja...

MIRENTXU Eta beste hiru jasotzekoak.

JOXE TA TXOMIN Ja... ja... ja...

IV LEHENGOAK ETA KATTALIN

KATTALIN Hori duk umorea, hori!!! Hi ere hemen al'hintzan, Kalixto?

KALIXTO Etorri ez banintz hobe.

KATTALIN Zerbait egin al'ditek gazte hauek?

MIRENTXU Joan zan osteguneko kontuekin ari ginen, ama.

KATTALIN Zer kontu?

TXOMIN Alabarentzat senar-gaia bai omen duela Kalixto'k, alegia.

KATTALIN (*Farrez*) A... Hori al'zenuten? Alabarentzat ezezik, amarentzat ere bai.

JOXE Zuretzat ere bai?

KALIXTO Isilduko al'zera, atso petral hori?

KATTALIN Bera ezkondu nahi likek nerekin. Alargundu nintzen egunetik hemen zabilek, usaiean.

TXOMIN Ja... ja... ja... Alboko txarra etzenuke, ez, andra Kattalin.

JOXE Trabenoako lanak ere egingo lizkitzuke, zuzen asko.

KATTALIN Lanak egingo lituzken etzekiat; hemengo ardoak edan bai.

KALIXTO	Zurekin ezkontzeko nagoela uste al'duzu?
KATTALIN	Hamaika bider esan didak, bada.
KALIXTO	Larogei urte izango dituzu-ta... Zarpailu ederraren jabe egin behar nuke...
KATTALIN	Nere patxara hartuko hukek, praka-jario horrek...
TXOMIN	Kalixto'k eskeini zizun gazte hori nor dan ez diguzu esan, Mirentxu.
MIRENTXU	Koldo.
TXOMIN	Ermentarinekoa?
MIRENTXU	Bai.
JOXE	Eta?
MIRENTXU	Beste batengana joateko esan nion, horrelako erregaliarekin.
KALIXTO	Zer zera, bada, zu, xanka-mehe hori?
TXOMIN	Hobe zenuke honen xanka-meheak bazenitu, Kalixto. Zabil-tzan baino arinago eta zuzenago ibiliko zinake...
KATTALIN	Arin ibiltzen zen garaia bazian, bai, Kalixto'k. Hori bezelako neska-laguntzailerik ez duk izan herrian.
JOXE	Ez, e?
KATTALIN	Herriko neska guztiak bere atzetik izan ohi zizkian.
TXOMIN	Ño... Aukera ona, beraz? Etzuen gure antzik.
JOXE	Egia al'da, Kalixto?
KALIXTO	Ez duk sinestuko bainan ni urreratzean lerdea erortzen etzizaion neskarian ez hukan herrian.
JOXE	Horrenbesteraino?
TXOMIN	Beste batengana joateko esan nion, horrelako erregaliarekin.

- KATTALIN** Ezti beharrik etzian horrek, ez, neskak beraganatzeko.
- KALIXTO** (*Zutitu bedi, harroturik*). Gazte egokia nintzan, gero, Kattalin.
- KATTALIN** Bai, bai. Bakoitzari berea eman behar zaio.
- KALIXTO** Pozik ezkonduko zinan zu ere nerekin. Nik ez nahi, ordea.
- MIRENTXU** Zergaitik ez?
- KALIXTO** Neretzat zaharregia zalako.
- KATTALIN** Orain ere, alde berdin-berdina diagu adinean bainan ezkon nahi hukek nerekin.
- KALIXTO** (*Bere aulkira doa, buru-makur*).
- TXOMIN** Ez al'diozu erantzun behar, Kalixto?
- KALIXTO** Ez. Haundiak esango nizkioket eta ez diat nahi.
- TXOMIN** Anka hori zuzenduko balitzaizu... Oraindik ere...
- KATTALIN** Anka horrena ez al'dakizute?
- JOXE** Ez.
- KALIXTO** Isilduko al'zera, atso kontakatilu hori?
- TXOMIN** Esan, esan, andra Kattalin.
- KATTALIN** "Borda-luze" baserrira joan zan neska-laguntzera, gau batean eta hozka egin zion atariko zakurrak.
- JOXE** Ja... ja... ja... (*Kalixto'ri*) Hozka egin behar zenion zuk ere...
- KALIXTO** Nori?
- JOXE** Zakurrari. Nori uste zenuen, bada, neskatxari? Ja... ja... ja...
- KATTALIN** Hil-zorian egon zan gizagajoa eta ordutikakoa du erren hori.
- TXOMIN** Nolaz gelditu zinan mutiltzar?

KATTALIN	Haundiagoa esango dizuet: Hamalau urtez ibili zan Lesaka-ko neska batekin.
JOXE	Hamalau urtez?
KALIXTO	Zeretik ez al'duzu esan behar?
KATTALIN	Neretik?
KALIXTO	Entzungo zenituke, bai, ederrak, zure alaba hor ez balego. Zu ere etzinan, gero, artaldeko bildotsik onena... Eliz-atzeko intxaurrak hizketan baleki...

V

LEHENGOAK ETA GAZTEA

GAZTEA	Arratsalde on.
GUZTIAK	Berdin.
GAZTEA	Kopa bat ateraidazu.
MIRENTXU	Nolakoa?
GAZTEA	Gorria.
KALIXTO	<i>(Betaurrekoen gaineratik begiratuko dio gazteari, erdizutiturik).</i>
KATTALIN	Sukaldera noa, nere lanetara.
KALIXTO	<i>(Berekiko)</i> Nondik ezagutzen dut gazte hori?
TXOMIN	<i>(Kalixto'ri)</i> Zertarako daramazkitzu sudurrean betaurreko hoiek, beroien gaineratik begiratzekotan?
KALIXTO	<i>(Erdi-zutiturik jarraiko da, gazteari begira)</i> <i>(Berekiko)</i> Nondik ezagutzen dut gazte hori?
GAZTEA	Pello izan al'da hemen?
MIRENTXU	Oraindik ez da etorri.

GAZTEA	Noiz etorriko ote?
MIRENTXU	Laister, nere ustez.
GAZTEA	Bai?
TXOMIN	Inork jakitekotan, honek jakingo dik Pello'ren berri.
KALIXTO	<i>(Mahaia joaz)</i> A, bai...
JOXE	Norekin hasarra zera, Kalixto?
GAZTEA	<i>(Kopa hustuaz)</i> . Geroxeago itzuliko naiz.
MIRENTXU	Pello'ri zerbait csatea nahi baduzu...
GAZTEA	Ez, ez; gero arte. <i>(Irtcn bedi)</i> .
KALIXTO	<i>(Begiak irteteko zorian begirako dio gazteari)</i> .
MIRENTXU	Ezaguna al'duzu, Kalixto?
KALIXTO	Ezaguna... czaguna ez. Joan zan ostegunean ere Pello'ren galdezka zan hori bera, nere etxe aurrean.
MIRENTXU	Bai?
KALIXTO	Bai. Oker ez banago.
TXOMIN	Zu zuzentzen ez da erraza.
KALIXTO	Hi zuzenduko haut nik, tximu hori!!! <i>(Mirentxu'ri)</i> Poltsa bat ekarri zion gazte horrek Pello'ri.
MIRENTXU	Poltsa bat?
KALIXTO	Bai.
MIRENTXU	Zer zekarren poltsa hartan?
TXOMIN	Ontzako urreak, apika. Ja... ja... ja...
KALIXTO	Herorri hi ontza, begi-haundi hori...

JOXE TA TXOMIN (*Farrez*).

MIRENTXU Zer egin zion poltsa hari, gero?

KALIXTO Ohean sartu bazuen ere, nik zer dakit?

TXOMIN Zuretzat zerbait izango zuen, agian.

MIRENTXU Bai, zera.

JOXE Badakigu, Mirentxu, lepoko urrezko kate hori ere Pello'k emana duzula.

KALIXTO Zer, zer esan duk?

MIRENTXU Ezer ez, zuri.

KALIXTO Urrezko kate hori Pello'k eman zizula?

TXOMIN Pello, zure mutil hori, Mirentxu'ren adiskidea danik ez al'zenekien?

KALIXTO (*Zutiturik*). Zer esan duk? Egia al'da, Mirentxu?

MIRENTXU Zerbait-zerbait...

KALIXTO Txerri alena!!! Leku ederrean sartu ninduan...

TXOMIN Horra, nolatan, zure mutilaren aita-ordeko egin zintezkeen, andra Kattalin'ekin ezkontzen bazera.

JOXE Bi negozioak elkartu, gainera.

MIRENTXU Aita-ordeko ederra opa didazute, alajaina...

KALIXTO (*Oldozkor*) Ezer esan ez neri, mozolo horrek...

JOXE "Angelus" erreztatzen ari al'zera, Kalixto?

MIRENTXU Baleki, bai.

KALIXTO Hik jakingo dun... Eleiz-mutil ibilia naun, gero, ni.

TXOMIN	Meza legorrak izango ziren, beraz, zuk laguntzen zenituen mezak.
KALIXTO	Legorrak?
TXOMIN	Bai; ardorik gabeak... Meza-ardorik ez al'zenuen edaten?
KALIXTO	Ahal nuenean, bai.

VI LEHENGOAK ETA PELLO

PELLO	<i>(Lehenengo ekitaldiko poltsa harekin agertuko da, eta sal-mahaiaren gainean utziko du).</i>
KALIXTO	<i>(Zutiturik, Pello'ren atzetik doa)</i> Poltsa hori...
PELLO	Poltsa hori, zer?
KALIXTO	Poltsa hori da, Mirentxu, poltsa hori.
PELLO	<i>(Kalixto'ri bultz eginaz)</i> Zoaz hortik, zarpail hori!!!
KALIXTO	<i>(Aulkira doa).</i>
MIRENTXU	Agurrik ere ez diguzu egin, Pello.
TXOMIN	Agurtuko zaitu, bai... Ja... ja... ja...
JOXE	Gu joatean agurtuko zaitu, goxo-goxo.
MIRENTXU	Zer hartuko duzu?
PELLO	Ardoa.
MIRENTXU	<i>(Atera bezaio ardoa)</i> Zer duzu poltsa hortan?
KALIXTO	<i>(Erne dago, lepoa luzaturik).</i>
PELLO	Urdai-azpiko bi.
KALIXTO	Zer?

MIRENTXU	Nondik ekarri dituzu?
PELLO	Erosi egin ditut.
KALIXTO	Zer?
MIRENTXU	Norentzat?
TXOMIN	Hori galdetzea ere... Bi urdai-azpiko... Hori da erregalia, hori...
JOXE	Maitatuko hau, berriro ere, Pello...
MIRENTXU	(<i>Farrez</i>) Badakizu zer egin, Joxe, inork maitatzea nahi baduzu...
TXOMIN	Bi urdai-azpiko... Maitasun garestia da hori, Mirentxu.
KALIXTO	Bi urdai-azpiko?
PELLO	Isilik zagoz, berritsu hori!!!
TXOMIN	(<i>Kalixto'ri</i>) Bestelako harrera egingo lizuke andra Kattalin'ek, noizik behinka urdai-azpikoarekin etorriko bazina.
KALIXTO	Nik ekarritako urdai-azpikoarekin aho-sapairik ez dik gazituko, atso sorgin horrek...
PELLO	Zer dio, anka-baldar horrek?
JOXE	Hire aita-ordeko egin nahiean dabilela bai al'dakik?
TXOMIN	Bai. Andra Kattalin'en atzetik omen zebilek.
JOXE	Aita-semeak zerate, laister.
PELLO	Lehenago itoko diat.
KALIXTO	Hiretzat nahi al'dituk biak?
TXOMIN	Batek ere lanik asko emango dio, Kalixto.
KALIXTO	Mutiltzar hobe likek, horrek ere.

MIRENTXU	Nondik ekarri dituzu?
PELLO	Erosi egin ditut.
KALIXTO	Zer?
MIRENTXU	Norentzat?
TXOMIN	Hori galdetzea ere... Bi urdai-azpiko... Hori da erregalia, hori...
JOXE	Maitatuko hau, berriro ere, Pello...
MIRENTXU	(<i>Farrez</i>) Badakizu zer egin, Joxe, inork maitatzea nahi baduzu...
TXOMIN	Bi urdai-azpiko... Maitasun garestia da hori, Mirentxu.
KALIXTO	Bi urdai-azpiko?
PELLO	Isilik zagoz, berritsu hori!!!
TXOMIN	(<i>Kalixto'ri</i>) Bestelako harrera egingo lizuke andra Kattalin'ek, noizik behinka urdai-azpikoarekin etorriko bazina.
KALIXTO	Nik ekarritako urdai-azpikoarekin aho-sapairik ez dik gazituko, atso sorgin horrek...
PELLO	Zer dio, anka-baldar horrek?
JOXE	Hire aita-ordeko egin nahican dabilela bai al'dakik?
TXOMIN	Bai. Andra Kattalin'en atzetik omen zebilek.
JOXE	Aita-semeak zerate, laister.
PELLO	Lehenago itoko diat.
KALIXTO	Hiretzat nahi al'dituk biak?
TXOMIN	Batek ere lanik asko emango dio, Kalixto.
KALIXTO	Mutiltzar hobe likek, horrek ere.

-
- MIRENTXU** Bai, e?
- KALIXTO** Txerria hildako astea eta ezkonduko urtea omen dire onenak, Mirentxu.
- TXOMIN** Txerririk hil gabe ekarri dizkio urdai-azpikoak, Pellok.
- KALIXTO** (*Sal-mahairuntz doa*) Ia, nolakoak diren...
- MIRENTXU** Zer?
- KALIXTO** Urdai-azpikoak... Zer uste zenuen?
- PELLO** (*Aulkira eramango du Kalixto, zarpatik*) Hor zagoz, lotsa-gabea. Zure etxean zagozela uste al'duzu?

VII

LEHENGOAK ETA KOLDO

- KOLDO** (*Ehizeko izkilua eta gerrikoa dakartz*) Arratsalde on.
- MIRENTXU** Bai zuri ere.
- KALIXTO** (*Bere burua ezkuta nahi luke, Koldo ikustean. Bizkarra emango die guztieri*).
- TXOMIN** Hona, gure ehiztaria. Asko bota al'dituk?
- KOLDO** Gerriko hori non erosi duk?
- PELLO** Kalixto'k egin zio.
- TXOMIN** (*Gerrikoa ikutuaz*) Ederra duk... Kalixto zahar horrek bazekik lanean...
- KOLDO** Kalixto diok... Kalixto... Tiroz botako nitek, hemen balego...
- KALIXTO** (*Mahai-pean ezkutatu da, Koldo'ren hitzak entzutean*).

PELLO	Hara hor Kalixto.
KOLDO	Non? (<i>Izkilua zuzenduko dio Kalixto'ri</i>).
KALIXTO	Ez... ez... ez... (<i>Deadarka</i>).
TXOMIN	(<i>Koldo'ri izkilua ken nahirik</i>) Hago geldi, horrelako astakeririk egin gabe.
MIRENTXU	(<i>Eskubiko atetik aldegingo du, ikaraturik</i>) Ama!!! ama!!!
KOLDO	(<i>Kalixto'ri</i>) Nik garbituko zaitut!!!
PELLO	Lan ederra hartuko duk hori garbitzen. Jaio zanez geroztiko koipeak berekin dizkik.

VIII

LEHENGOAK, KATTALIN ETA MIRENTXU

KATTALIN	Zer da hemen?
TXOMIN	Ez da ezer, andra Kattalin.
MIRENTXU	Ezetz? Ia-ia tiroz bota zuen Koldo'k Kalixto, ama.
TXOMIN	Usorik ez omen du bota eta basurdea, orain, ia-ia.
KATTALIN	(<i>Koldo'ri</i>) Kalixto'k zer egin dik?
KOLDO	Joan zen ostegunekoa ahaztu al'zaizu?
KATTALIN	Zer, ordea?
KOLDO	Hiru mila pezetakoa, alegia.
KATTALIN	Hori al'duk guztia? Hiru mila pezetagaitik hil nahi al'duk gizona? Itzuliko dizkik, bai.
KALIXTO	(<i>Berekiko</i>) Haiek ikusteko beharko du... (<i>Elkar hizketa isilean jardungo dire Mirentxu eta Pello</i>).
TXOMIN	(<i>Farrez</i>) Hiru mila pezeta kendu dizkik. beraz. andra- ? eiaia

KOLDO	Dirua kendu bai; andra-gairik aurkitu ez, ordea.
KALIXTO	Besoan hartu eta etxera eramatea nahi al'duk? Nik egin diat nere lana; hik egin behar duk, orain, hirca.
KOLDO	Guztia egina zegoela esan zenidan atzo.
KALIXTO	Guztia... guztia, zer duk hiretzat? Hik saia behar duk guztia egiten, hik!!!
KOLDO	Ez du nahi, ordea!!!
KATTALIN	Mirentxu'k badik bere adiskidea, Koldo.
KALIXTO	<i>(Koldo'ri)</i> Hik ere izango duk, urdai-azpikoa ekartzen badick.
KOLDO	Hiru mila pezeta eta urdai-azpikoa gainera?
KALIXTO	Hiru mila pezeta neretzat eta urdai-azpikoak...
KATTALIN	Zer urdai-azpiko? <i>(Farrez egongo dire Txomin eta Joxe, elkar-hizketa guztian).</i>
KALIXTO	<i>(Zutiturik)</i> Begira ezazu poltsa hortan, Kattalin.
KATTALIN	<i>(Begira beza)</i> Urdai-azpiko hauek nork ekarri ditu?
KALIXTO	Nik ez.
KATTALIN	Esan beharrik ez duzu hori.
MIRENTXU	Pello'k ekarri dizkit, ama.
JOXE	Guk ere hasi beharko dugu zerbait egiten, andra-gairik nahi badugu.
TXOMIN	<i>(Erlojuari begira)</i> Garai diagu, Joxe.
JOXE	Zer zor dugu?
MIRENTXU	Bina kopa dituzte, ama.
KATTALIN	Larogei pezeta, orduan.

- TXOMIN** (*Dirua sal-mahaiaren gaincan utzirik*) Tori...
- JOXE** (*Kalixto'ri*) Etzera amutsa, Kalixto.
- TXOMIN** Zerbait har nahi al'duk, Koldo?
- KOLDO** Beltz bat.
- TXOMIN** Beltz bat atera Koldo'ri, nere kontura.
- KATTALIN** (*Atera bezaio*).
- TXOMIN** Tori sei pezeta.
- PELLO** Kalixto bainan leialagoak dituk hauek, Koldo.
- TXOMIN** (*Ateruntz doa*) Agur, guztiori.
- JOXE** Agur, Kalixto. (*Kalixto buruan joaz*) Hau duk mutiltzarra, hau!!!
- TXOMIN** Ja... ja... ja... Koldo bezelako asko bazenitu, bai ederki, Kalixto.
- KOLDO** Hortan utziko diotala usten al'duk? Lehenago lepoa bigurrituko zioat. (*Farrez irtengo dire Txomin eta Joxe*).

IX

KALIXTO, KATTALIN, MIRENTXU ETA PELLO

- KATTALIN** Itzuliko dizkik diruak, Koldo.
- KOLDO** Beharko. (*Izkilua erakutsiaz*) Bertan zerraldo utziko dut, bestela.
- KATTALIN** Ixkanbilarik ez diagu behar hemen barruan; hor atarian nahi duzutena egin.
- PELLO** Ez izutu, Kattalin. Hoekikoak berehalaxe egingo ditugu.
- KALIXTO** Harro al'hago, harro? Oilategiko oilarraren antzera?

-
- KATTALIN** Oilorik ez dago hemen eta oilarrik ere ez.
- MIRENTXU** Bera, hori, oilarra.
- PELLO** Gandorrik gabea, ordea...
- KOLDO** (*Kalixto'gana doa*) Nun duzu nere dirua?
- KALIXTO** (*Ardoa edango du, erantzuteke*).
- KOLDO** Non duzu?
- KALIXTO** Zer?
- KOLDO** Nere dirua!!!
- KALIXTO** Tratoak trato izan ohi dituk.
- KOLDO** Agindu zenidana bete al'duzu?
- KALIXTO** Bai; joan zan osteguncan zer esan nizun, Mirentxu?
- MIRENTXU** Senar-gai jator bat bazenuela neretzat.
- KALIXTO** (*Koldo'ri*) Ikusten?
- MIRENTXU** Nik, ordea, ezezkoa eman nizun.
- KATTALIN** Zure senar-gaiaren zai dagoelakoan al'zagoz, nere alaba?
- KALIXTO** Ño... Nongo erregekumeak ote zerate?
- KOLDO** Atzo goizean zer esan zenidan?
- KALIXTO** Ahaztu zaidak.
- KOLDO** Mirentxu'k baiezkua eman zizula esan zenidan eta beste hiru mila pezetakoa eskatu.
- PELLO** Eman al'hizkiokan?
- KOLDO** Ez.
- PELLO** Zure dirua, zaila.

-
- KOLDO** *Zaila? (Berotu da zeharo eta lepotik helduko dio Kalixto'ri).*
- KALIXTO** Ai... ai... ai... Itoko nauela!!!
- KOLDO** Emango al'didazu ala ez?
- KALIXTO** Ai... ai... ai... Itoko nauela, Pello!!!
- KATTALIN** Geldi egongo al'zerate?
- MIRENTXU** Zerbait egin ezazu, Pello; itoko du bestela.
- PELLO** Hori ito? Ez, ez. Errotarria lepotik loturik duela itsasora jaurtiko balu ere ez.
- KATTALIN** *(Koldo'ri gerrikotik heldu eta atzera egingo dio)* Egongo al'zera geldi?
- KALIXTO** Ai... ai... ai... Ken hidak ero hau, Pello!!!
- PELLO** Hor konpon...
- KOLDO** Emango al'dizkidatzu ala ez?
- KALIXTO** Bai, bai!!!
- KOLDO** *(Utz bezaio).*
- KALIXTO** Nere lan-tokira hoa bihar eta han emango diat.
- KOLDO** Ez... ez... Orain behar dut.
- KALIXTO** Guztia ez diat, bainan, hemen...
- KOLDO** Zenbat daukazu?
- KALIXTO** *(Berekiko)* Hiri esango diat...
- KOLDO** Zenbat?
- KALIXTO** Etzekiat, bada... Hoge duro, edo...

KOLDO	Ongi da. Han izango nauzu bihar goizean. Hi haiz lekuko, Pello.
PELLO	Ni? Et... et... et...
KOLDO	Berdin duk. (<i>Kalixto'ri</i>) Eman beharko didazu, bizirik nahi baduzu.
KATTALIN	(<i>Koldo'ri</i>) Ospa hemendik!!! Zu ere bai, Kalixto!!! Arratsalde osoan zagoz, hor, txiki-erdi batekin.
KALIXTO	Zagi osoa cdatea nahi al'zenuen?
KOLDO	(<i>Irten bedi, isilik</i>).
KATTALIN	Zagia ere hustuko zenuke bai, inork ordainduko ba'lizu.
MIRENTXU	Dar-dar-dar egon naiz, beldurrez.
PELLO	Beldurrez?
MIRENTXU	Bai. Hilko zuela uste nuen.
PELLO	Hori hil? Ez, ez. Hori hilko duen izkilurik ez da.
KALIXTO	Urdai-azpiko hoiek ez al'ditugu ikusi behar?
KATTALIN	Ikusten, lukainka hori!!! Oraintxe zan antsika, laguntza eske eta ikusten nolako ateraldia, orain.
MIRENTXU	(<i>Kalixto'ri</i>) Zuretzat direlakoan al'zagoz?
KALIXTO	Ez, pertxenta, ez; ikusi egin nahi nituen, besterik ez.
PELLO	(<i>Kalixto'ri</i>) Hor egon behar al'duzu gaberdirarte?
KALIXTO	Neri ezer agintzeko nor haiz hi?
KATTALIN	Ni naiz hemengo etxekoandrea eta alde hemendik!!!
KALIXTO	Ño... Badakigu, emakume, badakigu... Hori da mokoia, hori!!! Atsegin ez da izango zure alboan, bibote hoiek zutitzen zaizkizunean...

-
- KATTALIN** Nere ondoren habil, bada, aspaldian...
- KALIXTO** Ni? Zu bai, nere ondoren.
- KATTALIN** Je... je... Hi bezelako zarpa-jario batentzat nagoela al'derizkiok?
- MIRENTXU** Oso dotore dago, gaur, ama, korbata eta guzti...
- KATTALIN** Tokatzen urdeari gerriko gorria... Banoa, banoa, esan behar ez direnak esan ez ditzadan... Agur, Kalixto...
- KALIXTO** Agur, agur... regiña masustiña... Ja... ja... ja...
- KATTALIN** (*Irten bedi, musin eginaz*) Kaiku hori...
- KALIXTO** Edango zenuke kaiku hontatik... Ja... ja... ja...

X

MIRENTXU, PELLO ETA KALIXTO

- MIRENTXU** Amak zer esan dizun entzun duzu.
- KALIXTO** Bai. Oso etxeko duzute Pello hau, e?
- MIRENTXU** Etxeko edo atariko, alde hemendik!!!
- KALIXTO** Zergaitik bidali nahi nauzuten badakit.
- MIRENTXU** Zergaitik?
- KALIXTO** Zera... Kontu potxoloak eta... badakizu... Ur hoietan ibilia naiz ni ere...
- PELLO** (*Kalixto'ri zarpatik*) Alde hemendik!!!
- KALIXTO** Hau amaitzean joango nauk, mutil... Hori duk ezin egona, hori. Gero ere hor izango duk bai, hori.

XI

LEHENGOAK ETA GAZTEA

- GAZTEA** *(Pello'gana doa)* Kaixo.
- PELLO** Kaixo.
- GAZTEA** *(Aurrera darama Pello, besondotik heldurik)* Saldu al'dituk?
- PELLO** Oraindik ez.
- GAZTEA** Laugarren eguna duk eta oraindik ez?
- KALIXTO** *(Gazte bien albora doa, astiro, zerbait entzun nahiean).*
- PELLO** Sosik ez diat...
- PELLO** Zerbait aurreratuko diat.
- GAZTEA** Zenbat?
- PELLO** Bostehun pezetako bat, edo.
- KALIXTO** *(Berekiko)* Urdai-azpiko merkeak dituk, alazankoa!!!
- PELLO** *(Kalixto ikustean)* Zer nahi duzu?
- KALIXTO** Ezer ez.
- PELLO** Zoaz bada.
- KALIXTO** *(Bere aulkira doa).*
- GAZTEA** Bostehun pezeta besterik ez?
- PELLO** Besterik ez diat hemen. Bihar emango dizkiat gainerakoak.
- GAZTEA** Emaizkidak, bada, bostehun.
- PELLO** *(Sakelak miatuz)* Non ote diat?

KALIXTO *(Berekiko, farrez)* Kajaorrosen...

MIRENTXU Zeren bila zabiltz?

PELLO Bostehunekoa hartu nuela uste nuen-ta...

KALIXTO *(Berekiko)* Bai, bai...

PELLO *(Mirentxu'ri)* Bostehunekorik bai al'duzu hor?

MIRENTXU Bai. *(Emanaz)* Tori.

PELLO *(Dirua hartu eta gazteari emango dio).*

GAZTEA Bihar goizean joango natzaik lantokira.

KALIXTO *(Berekiko)* Ez alferrik...

PELLO Bai.

GAZTEA Agur.

PELLO Zerbait hartuko duk...

GAZTEA Ez, ez; agur. *(Irten bedi).*

KALIXTO *(Berekiko)* Gazte hori... poltsa... urdai-azpikoak... bostehun pezetakoa... Nagusiaren antzeko morroia dela esango nitek.

PELLO Bihar emango dizut ordaina, Mirentxu.

KALIXTO *(Berekiko)* Bai, bai...

MIRENTXU Jesus... Emango didazu, bai...

KALIXTO *(Berekiko)* Emango din, bai...

MIRENTXU Gazte hori nor zen?

PELLO Lesaka'ko nere adiskide bat.

KALIXTO Gezurra!!!

-
- PELLO** Zer dakizu zuk?
- KALIXTO** Nik ezagutzen ez dudan sagurik ez duk Lesaka'n.
- PELLO** Etorri berria da Lesaka'ra.
- KALIXTO** Hala beharko... (*Berekiko*) Gezurra jaulki duk, orain ere.
- MIRENTXU** Buka al'duzu ardo hori?
- KALIXTO** Bai, emakume, bai. Hori da presa, hori!!! Ez dizu aldegingo, ez.

XII

LEHENGOAK ETA KATTALIN

- KATTALIN** Aitaren, Semearen... Oraindik hemen al'dago alproja hau? Ospa hemendik!!! Ateak itxi behar ditugu.
- KALIXTO** Beste hori ez al'duzu bidali behar?
- KATTALIN** Hori ere joango da, bere garaican.
- KALIXTO** Bere garaican, beraz, e? Ja... ja... ja... (*ateruntz doa*).
- MIRENTXU** Ardoa ordaindu al'dizu, ama?
- KATTALIN** Ez, neri.
- MIRENTXU** Ardoa noiz ordaindu behar duzu, Kalixto?
- KALIXTO** E...?
- MIRENTXU** Ardoa ordaintzeko, alegia.
- KALIXTO** Lehen ez al'dizut ordaindu?
- MIRENTXU** Ez, neri.
- KATTALIN** Ezta neri ere.

-
- KALIXTO** Ziririk sartzerik etzegok haueri. (*Berekiko*).
- KATTALIN** Zer esaten ari zera?
- KALIXTO** Tori, hamabost pezeta.
- KATTALIN** Hamabost ez, hogei.
- KALIXTO** Berriz ere igo al'duzute?
- MIRENTXU** Ondotxo dakizu zenbat dan...
- KALIXTO** Tori, tori...
- MIRENTXU** Ongi da.
- KALIXTO** (*Mirentxu bizkarrean joaz*) Hau duk marrubia, hau... Ja... ja... ja...
- MIRENTXU** Belarrondoko hotzak kentzea nahi ez baduzu, alde hemendik!!!
- KALIXTO** Ja... ja... ja... (*Irten bedi*).

XIII

KATTALIN, MIRENTXU ETA PELLO

- KATTALIN** Zuek ere ez luzaroan egon, berandu da-ta.
- MIRENTXU** Berehalaxe goaz, ama.
- KATTALIN** Urdai-azpiko hoiek norentzat dituk, Pello?
- PELLO** Zuentzat.
- KATTALIN** Musu-truk?
- PELLO** Musu-truk, edo...
- KATTALIN** Eskerrikasko, Pello. (*Poltsa harturik*) Hau duk erregalia, hau!!!

PELLO Ez da ezer hori.

KATTALIN Ezetz? Alajainetan... Sukaldera zeramazkiat, beraz.

MIRENTXU Bai, bai.

KATTALIN Eskerrikasko eta bihar arte, Pello. (*Irten bedi*).

PELLO Bihar arte, bai.

KATTALIN (*Atetik*). Atariko atea itxi zan, Mirentxu. (*Ezkuta bedi*).

MIRENTXU Bai, ama. Atea itxitzera noa, Pello. (*Irten bedi ezkerreko atetik*).

PELLO Lagunduko dizut. (*Irten bedi*).

OIHALA

HIRUGARREN EKITALDIA

(Lehenengo ekitaldiko antzez-leku bera)

I

KALIXTO ETA PELLO

- KALIXTO** *(Jazkera arineko emakumea duen egutegia ipintzen ari da horman).*
- PELLO** *(Lo dago aulkian, buru-makur).*
- KALIXTO** *(Egutegiari begira).* Lehengoa bainan polittagoa ez ote, Pello?
- PELLO** *(Lo dago).*
- KALIXTO** Politta ez al'duk, Pello?
- PELLO** *(Lotan jarraitzen du).*
- KALIXTO** *(Beregana joan eta astindu bat emango dio, lo dagoela nabaitzean).*
- PELLO** Zer nahi duzu?
- KALIXTO** Noiz ohera hintzan, bart?
- PELLO** Zure ondoren irten nintzan trabenatik.
- KALIXTO** Beste bati sar beharko diok ziri hori, ez neri. Lanerako asmorik ez al'duk?

-
- PELLO** Asmoa, bai.
- KALIXTO** (*Bere aulkian jarriko da*). Buka al'dituk hoiek?
- PELLO** Ez; iltzeak bai, bukatu dire.
- KALIXTO** Iltzeak bukatu? Zortzi egun ez dituk ekarri genituela.
- PELLO** Bukatu dire, bada.
- KALIXTO** Hik lapurtzen dituk iltzeak hemendik.
- PELLO** Nik? Jateko edo zertarako?
- KALIXTO** Joan eta ekarri hitzak.
- PELLO** Zenbat?
- KALIXTO** Hogei duronak.
- PELLO** (*Eskua luzaturik*). Dirua...
- KALIXTO** Ordaindu hitzak eta gero emango diat.
- PELLO** Ez, ez. Zure gerokoa badakit zer izaten dan.
- KALIXTO** (*Hogei durokoa emango dio*). Hi bezain ume piakaitzik...
- PELLO** Aurreak erakusten du atzea nola astindu, Kalixto...
- KALIXTO** Hoa eta ekar hitzak, azkar.
- PELLO** (*Mantala kendu eta irten bedi*).

II

KALIXTO ETA ON TORIBIO

- KALIXTO** (*Mahai-petik zatoa atera eta zurrut egingo du*).
- TORIBIO** (*Edaten ikusiko du*). Orain ere hortan haiz?

-
- KALIXTO** (*Esku-gainez czpainak igortzirik*). Hori da goizeko agurra, hori!!! Egariak nengoen-ta...
- TORIBIO** Hire egarri hori asetzeko din ardorik ez duk Nafarroan. Egunean zenbat edaten duk?
- KALIXTO** Asko-askorik ez.
- TORIBIO** Asko, zenbat da hiretzat?
- KALIXTO** Ba... Bi bider hustutzen dut zato hau.
- TORIBIO** Zatokada bi hemen; eta otorduetan?
- KALIXTO** Otorduetan, beste bi.
- TORIBIO** Hori duk astakeria, hori!!! Hire gibela nola ote zegok?
- KALIXTO** Nere gibela? Gibleko minik ez dut, On Toribio. Gainera, gibelak zer ikustekorik du ardoarekin?
- TORIBIO** Sabel-urak zerk bereizten dituela uste duk, gibelak ezik?
- KALIXTO** Urak? Ez, ez; nere gibelak ez du urak bereizten lanik. Berrogei urte hauetan urik ez da sartu nere eztarritik. Nondik sartu, bera, ura nere gibelera? Sudur-zuloetatik?
- TORIBIO** Zer dakik hik?
- KALIXTO** Je... Zuk bai ez dakizula, On Toribio. Elus prepetua, lauste kisti eta horrelakoak bai bainan ardo-kontuetan zuk neri erakutsi? Ez, On Toribio, ez; ardo eta sagardo onak zeintzuk diren ez didazu neri erakutsiko.
- TORIBIO** Ardo eta sagardo onik ez duk, giza-neurrian edaten ez bada.
- KALIXTO** Ardo tzarrak egiten du gaitz, ez onak, naiz-ta asta-lepo edan. Sagardoa berriz... Sagardoak gaitz? "Matxoneko" sagardoak gaitz egingo dion kristaurik ez da. Han, kupelaren txiritik irteten den mama ziprztindun hark, nori kalterik egin?
- TORIBIO** Kankar galantak eramaten omen dizkitek, bada, handik ere.

-
- KALIXTO** Edaten ez dakitelako. Atarira joan behar du, maiz, dargardo-edaleak.
- TORIBIO** Zertara, atarira?
- KALIXTO** Maskuria hustutzero. Tutik ez dakizu, On Toribio, sagardo ausentoan.
- TORIBIO** Ez jakitea, hobe. Albistaririk hartu al'duk?
- KALIXTO** Apalean duzu.
- TORIBIO** (*Egutegia ikusiko du, albistaria hartzero doanean*) Aitaren, Semearen...
- KALIXTO** Zer duzu?
- TORIBIO** Lehengoan zer esan nian?
- KALIXTO** Ez naiz gogorutzen.
- TORIBIO** Noiz ken behar duk zikinkeri hori?
- KALIXTO** Horrekin ari al'zinan? Amak hautsi zuen lehengo hura.
- TORIBIO** Eta hau?
- KALIXTO** Beste bat da hori. Bai politta, e, On Toribio? Lehengo hura baino ere polittagoa da hau.
- TORIBIO** Isilik hago, lizun hori!
- KALIXTO** Zer kalte egin lezaioke horrek inori? Ikus nahi ez duenak, ez dezaiola begiratu eta kito.
- TORIBIO** Begiak itxirik erabili beharko dizkiagu, beraz, hemen.
- KALIXTO** Itxirik ez; hortxe dago beste egutegia, hori ikus nahi ez duenarentzat.
- TORIBIO** Aitortzero ez hadi nigana joan; barkapenik ez diat emango.
- KALIXTO** (*Farrez*) Emango didazu, bai... Izperringia irakur ezazu, On Toribio

-
- TORIBIO** *(Irakurtzen hasiko da, aulkian jarririk).*
- KALIXTO** *(Zatotik zurrut egin eta lanari ekingo dio).*
- TORIBIO** Nahasia zegok mundu guztia, Kalixto. Hemen borroka, han giza-hilketak...
- KALIXTO** Irun'go hori irakurri al'duzu?
- TORIBIO** Ez.
- KALIXTO** Hortxe dakar, lehenengo orrialdean. Hiru miloe ostu omen dituzte, diru-etxe batetik; egunez, gainera... Neretik etzuten, arranoa, horrelako mordoskarik eramango. Asko duenari ken behar zaio, On Toribio...
- TORIBIO** Asko duenari edo gutxi duenari kentzea, lapurreta duk, beti.
- KALIXTO** Ezer ez duenak, asko duenari kentzea ez dago gaizki. Gauz guztiak Jainkoak eginak badire, zergaitik batzuek gainezka eta besteak hutsik?
- TORIBIO** Neri hiru urdai-azpiko lapurtu zizkidan hura ere gainezka egongo duk; hutsik ni, ordea...
- KALIXTO** Urdai-azpikoak ostu?
- TORIBIO** Hiru, bai.
- KALIXTO** Txerri batenak?
- TORIBIO** Hiru urdai-azpiko dituen txerririk ikusi al'duk, egundo?
- KALIXTO** Hori, bada, hori... Noiz lapurtu zizkitzuten?
- TORIBIO** Joan zan ostegunean.
- KALIXTO** *(Oldozkor)* Joan zan ostegunean...
- TORIBIO** Gazte bat ikusi omen zikan nere arrebak etxetik irteten, poltsa batekin...
- KALIXTO** *(Oldozkor)* Gazte bat poltsa batekin... Zer gizaantz ote zuen

- TORIBIO** Kalpardun eta bizartsua omen ukan, arrebak dionez.
- KALIXTO** (*Zatoari zurrut*) Kalpardun eta bizartsua, beraz?
- TORIBIO** Bai.
- KALIXTO** (*Zutiturik*) Zure urdai-azpikoak non dagozen badakit, On Toribio.
- TORIBIO** Bai?
- KALIXTO** Neronek ikusi dut guztia.
- TORIBIO** Jan ditzala, osasun ederrarekin.
- KALIXTO** Jan? Neri etzenidake horrela utziko...
- TORIBIO** Hiri ere bai.
- KALIXTO** Bai, e?
- TORIBIO** Hiru urdai-azpiko direla-eta ez nitek inor espetxeratu nahi.
- KALIXTO** Espetxeratu ez bainan kendu bai, joño...
- TORIBIO** Ez-ta. Nor danik ere ez diat jakin nahi.
- KALIXTO** Ez nioke nik utziko...
- TORIBIO** (*Albistaria irakurtzen jarraituko du*).
- KALIXTO** (*Aulkira doa*) Uztargileneko ardandegian dagoz zure urdai-azpikoak, On Toribio.
- TORIBIO** Nork eraman dizkik?
- KALIXTO** Pello'k.
- TORIBIO** Pello'k?
- KALIXTO** Ber-berak, bai.
- TORIBIO** Ez diat sinisten. Horrelakoa ez duk Pello.

-
- KALIXTO** Ezetz? Bart eraman zituen. Zure arrebak ikusi zuen gazte hark ekarri zizkion, poltsa batean, joan zañ ostegunean.
- TORIBIO** Nondikakoak diren bai ote zekik, Pello'k?
- KALIXTO** Ahoskalo...
- TORIBIO** Zergaitik eraman ote zizkian haruntza?
- KALIXTO** Je... Mirentxu bere emazte-gaia duela ez al'dakizu?
- TORIBIO** Ez, nik.
- KALIXTO** Bart jakin nuen nik ere.
- TORIBIO** Ez, gero, ezer esan Pello'ri, nere aurrean.
- KALIXTO** *(Berekiko)* Ikusiko dugu hori.
- TORIBIO** *(Albistaria irakurtzen).*

III

LEHENGOAK ETA PELLO

- PELLO** *(Fardeltxo bat dakar eskuan)* Kaixo, On Toribio.
- TORIBIO** Kaixo, Pello.
- KALIXTO** Bai al'dakartzak?
- PELLO** *(Fardeltxoa Kalixto'ri emanaz)* Bai.
- KALIXTO** Zenbatenak dituk hauek?
- PELLO** Hogei duronak.
- KALIXTO** Hamarrenik ere etzegok hemen.
- PELLO** Hoiek eman dizkidate neri.
- KALIXTO** Hamaika honelako egin didak, aspaldian...

TORIBIO Gauza guztiak garestitzen ari dituk eta badakik...

KALIXTO Urdai-azpikoak ere bai?

PELLO *(Bere aulkira joan eta lanean hasiko da).*

IV

LEHENGOAK ETA ANTTONI

ANTTONI *(Lurrontzia dakar eskuan, gosariarekin)* Egunon, On Toribio.

TORIBIO Bai zuri ere, Anttoni. Bizkor?

ANTTONI Hainbestean, hainbestean... Urte askoren zama bizkarrean eta badakizu...

TORIBIO Emakume gordina zagoz, oraindik.

ANTTONI Gure alproja honek errain on bat ekarri izan balit.

TORIBIO Ekarriko dizu, Anttoni, ekarriko dizu.

ANTTONI Zera ekarriko du, aza-buru horrek... *(Kalixto'ri)* Gosaria non utziko diat?

KALIXTO Hemen, mahaiean utzi, ama.

ANTTONI *(Utzi beza)* Gosaririk ekarri al'duk, Pello?

PELLO Bai, ekarri dut.

KALIXTO *(Eskuak mantalean igortzi eta gosaltzen hasiko da)* Erdibanatuko dugu, On Toribio.

TORIBIO Ez, ez; eskerrikasko. Etxean gosalduko diat.

ANTTONI *(Apalera doa Pello'ri bere gosaria emateko asmoz eta egutegia ikusten du)* Zer da hau!!!

TORIBIO Zer duzu, Anttoni?

ANTTONI Honoko hau ikusten al'duzu, On Toribio?

-
- TORIBIO** Ikusi dut, bai. Zure seme honi ezer esatea alferrik da.
- ANTTONI** Alferrik? (*Lurrera jaurtiko du egutegia, lau zati egina*)
Lehenagoan bat eta orain bestea? (*Bizkarrekoak emango dizkio Kalixto'ri*). Etxe hontako aldiak laister egingo dituk, urde horrek, berriz honelako zikinkeririk ipintzen baduk...
- TORIBIO** Ederki esana.
- ANTTONI** Nere semea haizela esatea ere... Emakume bat higanatzeko din ez haiz, eta...
- KALIXTO** Hori, bada, hori... Zerbaitekin alaitu behar nere bakartasun hau...
- TORIBIO** Lotsaren izpirik ez duk, Kalixto. Pello bezelako gazte batek hori egitea ez legokek ongi, bainan hik...
- PELLO** (*Anttoni'k eskuan duen gosaria hartu, aulkira joan eta gosaltzen hasiko da*).
- KALIXTO** (*Aho betearekin mintzatuko da*) Horrelakoren beharrik ez du Pello'k, On Toribio. Hezur eta mamizkoa ere badu horrek...
- TORIBIO** Bai? Zorionak, Pello.
- PELLO** Eskerrik asko.
- ANTTONI** Nor duk, Pello?
- KALIXTO** Uztargileneko alaba bakarra. Ezer ez dagoen lekura ez da joan, ez.
- PELLO** Zu ere han omen zabiltz, bere amaren atzetik.
- ANTTONI** Kattalin'en atzetik?
- PELLO** Bai.
- ANTTONI** Jesus, Maria eta Jose.
- TORIBIO** Hi ere lotan ez hago, beraz, Kalixto.

-
- KALIXTO** Ez da egia hori!!! (*Eskuan duen ogia kenduko dio Pello'ri eta ogibitarteko urdai-azpikoa erakutsiko dio On Toribio'ri*)
Urdai-azpiko hau ezagutzen al'duzu?
- PELLO** (*Ken bezaio ogia Kalixto'ri*).
- TORIBIO** (*Irakurtzen jarraiko du, erantzuteke*).
- KALIXTO** Zure urdai-azpikoa jaten ari da hau, On Toribio.
- TORIBIO** Urdai-azpikorik ez diat nik.
- ANTTONI** Nere lanetara noa. Gero arte. (*Irten bedi*).
- TORIBIO** Ger arte, Anttoni.
- KALIXTO** Zure urdai-azpikoak honek ditu, honek.
- PELLO** Zer diozu?
- KALIXTO** Bart Mirentxu'ri eman hizkioan urdai-azpikoak...
- TORIBIO** Egia al'duk hori, Pello?
- PELLO** (*Buru-makur*).
- KALIXTO** Neronek ikusi nuen.
- TORIBIO** Zer diok, Pello?
- PELLO** Norenak zirenik ez nekien...
- KALIXTO** Erregaliak egingo nizkikek, nik ere, besterenetik.
- TORIBIO** Gaizki zegok hori, Pello.
- KALIXTO** Hau da azaria, hau!!! Neskari bi eman eta beretzat gorde hirugarrena.
- PELLO** Nik ez nintuen lapurtu, On Toribio.
- TORIBIO** Bazekiat; hi ere errudun haiz, ordea.

-
- KALIXTO** (*Zatotik zurrut*).
- PELLO** Gazte batek lapurtu zizkitzun eta neri ekarri, nik saldu nitzan.
- TORIBIO** Eta emazte-gaiari saldu hik...
- PELLO** Saldu ez.
- TORIBIO** Gaizki zegok hori, Pello.
- PELLO** Itzuliko dizkitzut.
- TORIBIO** Ez, ez; jan hitzak. Bestek emanak nizkian nik ere...
- KALIXTO** Hirurak beretzat? Bat ez al'didazu neri emango?
- TORIBIO** Noiztik habil Mirentxurekin?
- PELLO** Hilabete biz honuntzik.
- KALIXTO** Errez egiten dituk hik andra-gaiak, besteren urdai-azpikoak emanaz.
- PELLO** Nere akatsak bakarrik agertu behar al'dituzu?
- KALIXTO** Nik zer egin diat?
- PELLO** Koldo'ri egin zeniona ahaztu al'zaizu?
- KALIXTO** (*Mailua jasoaz*) Isilik hago!!!
- TORIBIO** Zer, zer? Zer egin diok Koldo'ri?
- PELLO** Hiru mila pezeta lapurtu zizkion.
- KALIXTO** Isilduko al'haiz?
- TORIBIO** Hiru mila pezeta?
- KALIXTO** Hago isilik!!!
- PELLO** Emazte-gai politta eta aberatsa aurkituko ziola eta hiru mila pezeta kendu zizkion.

-
- TORIBIO** Aurkitu al'diok?
- KALIXTO** Oraindik ez.
- TORIBIO** Hi haiz hi mutiltzarra.
- KALIXTO** Mutiltzarra zera zu ere.
- TORIBIO** Apaiza nauk!!!
- KALIXTO** Apaiz edo praile, mutiltzarra zu ere, ni bezelaxe.
- TORIBIO** Zuek bai zeratela bata zu eta bestea ni... Nagusia lapurra eta morroia ere bai.
- PELLO** Ezer ez dut lapurtu, jauna.
- KALIXTO** Ez nik ere. Koldo'k emana hartzea besterik ez nuen egin.
- TORIBIO** Gezurtia, lapurra eta beste zerbait gehiago ere bahaiz hi.
- KALIXTO** Ni? Zer gehiago?
- TORIBIO** Lizuna, gainera.
- KALIXTO** Egutegi txatxu batzuengaitik al'diozu hori? Ba... ba... Zuri ere aterako nizkitzuke lapikotik babak, hortara ezkeroz.
- TORIBIO** Santua ez naizela bazekiat bainan zer egin diat txarrik?
- KALIXTO** Neri ez bainan... Xoxote'neko Märtzeliño'ri hortzak hautsi zenizkioncan..., zer?
- TORIBIO** Merezi zuelako hautsi nizkiokan.
- KALIXTO** Masail batean jotzen gaituenari bestea ipintzeko esan ez zuen, bada, Jesukristok?
- TORIBIO** Hala duk. Eleizatik lapurrak makilka ateratzen ere irakatsi zigukan.
- KALIXTO** Ur-bedeinkatu-ontzian zera egin zuela-ta, zuk eman zenizkion muturrekoak...

-
- TORIBIO** Ur-bedeinkatu-ontzia baino leku egokiagorik badituk, zera hori egin nahi duenarentzat, Kalixto. (*Erlojuari begira*). Joan behar diat, oraintxe.
- KALIXTO** Norako presa duzu? Gaurko lanak eginak dituzu...
- TORIBIO** Hik zer dakik? Gazte eta gaztetxoekiko bilerak, gaixoeri ikustaldiak, egunoroko otoitzak, igande eta jai-egunetako hitzaldiak...
- KALIXTO** Igandetako hitzaldiak? Neronek ere egingo nituzke igandetako hitzaldiak. Zuk bezain luze eta aspergarri ez baina. Handik edozer esatea erreza da; erantzuteko eskubiderik inork ez bait du.
- TORIBIO** Zuzenik esango hukek, bai, kerten horrek.
- KALIXTO** Konpesonaioan egongo nintzake ni gustora...
- TORIBIO** Ederra duk, bada, aitorlekua... A, gizagajoa... Arratsaldeko lauretan sartu eta hamarrek artean egon hadi, han barruan... Esango hidakek zeinen ona den...
- KALIXTO** Eta, han jakiten dituzuten kontuak?
- TORIBIO** Han jakiten ditugun kontuak, han gelditzen dituk.
- KALIXTO** Bai... bai...
- TORIBIO** Hire hiru mila pezetakoarena eta Pello'ren urdai-azpikoarena ere hantxe jakingo nizkian.
- KALIXTO** Esanez gero, bai.
- TORIBIO** Esanez gero? Ez esatekotan zertarako aitortu?
- KALIXTO** Ja... ja... ja... Benialik ez dugu aitortzen, On Toribio. Ttiki guztiak esaten hasiko bagina...
- TORIBIO** Hiru mila pezeta lapurtzea ttikia al'duk?
- KALIXTO** Ttiki-ttikia ez baina... erdipurdikoa...

TORIBIO *(Erlojuari begira)* Garai diat, oraintxe. Bihar arte, bada *(Irten bedi)*.

KALIXTO Bihar arte, On Toribio.

V KALIXTO ETA PELLO

KALIXTO Zergaitik esan diok?

PELLO Zuk ere esan diozu nerea.

KALIXTO Ez duk berdin.

PELLO Ezetz? Zuk nerea, nik zurea eta kito.

KALIXTO Hago, hago...

PELLO Zer hago eta zer ego. Ni baino gehiago al'zera zu?

KALIXTO Inoiz ez haiz izango ni bezelakoa.

PELLO Zu bezelakoa? Ez-ta nahi ere.

VI LEHENGOAK ETA KOLDO

KOLDO *(Ager bedi atean)*.

PELLO Horroko horrek konponduko zaitu.

KALIXTO Berriro jaio beharko dik...

KOLDO Zer?

KALIXTO Uso-giro ederra dagoela, alegia. Ehizean izan al'haiz?

KOLDO Zer zuri, izan banaiz edo ez banaiz.

KALIXTO Joño... Haserre hator.

-
- KOLDO** *(Eskua luzaturik)* Nere hiru mila pezetakoa.
- KALIXTO** Trato bat egin genikan.
- KOLDO** Berriketa gutxi neri, Kalixto. Bota dirua, narrua kentzea nahi ez baduzu. *(Lepotik helduaz)*.
- KALIXTO** Geldi hago!!!
- KOLDO** Bai ala ez?
- KALIXTO** Guztia nola emango diat, bada?
- PELLO** Bat ona emaiok eta kito.
- KOLDO** *(Astindu beza lepotik)* Bai ala ez?

VII

LEHENGOAK ETA MIRENTXU

- MIRENTXU** Borrokan al'zabiltzate orain ere?
- PELLO** Aurrera, Mirentxu. Ni ez; ni ez nabil borrokan... Hoiek...
- MIRENTXU** Zergaitik?
- PELLO** Badakizu hiru milakoa...
- KOLDO** Bai ala ez?
- KALIXTO** *(Ia itoan bezala)* Bai, bai; guztia emango diat...
- KOLDO** *(Utz bezaio)* Atera!!!
- KALIXTO** *(Lepoa igortzi, dirua atera eta eman bezaio)* To!!!
- KOLDO** *(Sakelean sartuko du dirua, ongi begiratu ondoren)* Ongi da.
- KALIXTO** *(Zatotik zurrut)*.
- PELLO** Zertara zatoz, Mirentxu?

-
- MIRENTXU** Oinetako haueri zoru-erdiak ipinaraztera.
- KALIXTO** Emaizkidatzu.
- MIRENTXU** (*Eman bezazkio*).
- PELLO** (*Kalixto'ri*) Kendu dizkitzu lehengo farre-gure haiek, e?
- KOLDO** Beste bati egin dezaiola far.
- PELLO** Ederki egin diok, Koldo.
- KALIXTO** Bai? Oraintxe garbituko dizkiagu kontuak. (*Mirentxu'ri*) Urdai-azpikoa gozoa al'dago, Mirentxu?
- MIRENTXU** Bai. Harekintxe gosaldu dugu.
- KALIXTO** Bai, e? Nondik norakoak ziren bai al'dakizu?
- MIRENTXU** Bai, Pello'k bere adiskide bati erositakoak.
- KALIXTO** On Toribio'ri galdegin behar zenioke, nondikakoak diren jakin dezazun.
- MIRENTXU** On Toribio'ri?
- KALIXTO** Bai.
- PELLO** Isilduko al'zera?
- KALIXTO** Ja... ja... ja... Larritu da, oraintxe, zure adiskide hau...
- MIRENTXU** On Toribio'k zer daki?
- KALIXTO** Hark daki guztia, hark... eta... nik ere bai.
- MIRENTXU** Esango al'didazu ala ez?
- KALIXTO** Zuk eta zure amak jan duzuten urdai-azpiko hori On Toribio'ri lapurtutakoa dela, alegia.
- MIRENTXU** Zer?

-
- KALIXTO** Zera... Ja... ja... ja... On Toribio'ri lapurtutakoa, bai.
- MIRENTXU** Egia al'da hori, Pello?
- PELLO** Zera... Gero esango dizut guztia, Mirentxu.
- MIRENTXU** Ez duzu ukatzen, beraz?
- KOLDO** (*Aho-zabal egongo da, begira*).
- KALIXTO** Jan zak, orain!!!
- PELLO** Gero esango dizut, Mirentxu.
- MIRENTXU** Gero? Ez, ez; nerekoak egin dituzu!!! Lapurtutako urdai-azpikoak neri erregali?
- PELLO** Bainan, Mirentxu!!!
- KALIXTO** Ja... ja... ja...
- MIRENTXU** Nigana ez etorri egundo!!! (*Besondotik helduko dio Koldo'ri*). Goazen, Koldo; lotsagarri hori baino nahiago zaitut zu. (*Ateruntz doaz*).
- KOLDO** (*Mirentxu'ri aurpegia losintsatuaz*). Ja... ja... ja...
- KALIXTO** Koldo!!! Koldo!!! Hiru mila pezetakoa!!!
- KOLDO** Zer?
- KALIXTO** Hiru mila pezetakoa, alegia!!!
- KOLDO** Zergaitik?
- KALIXTO** Emazte-gaia aurkitzeagaitik.
- MIRENTXU** Zuk? Neronek aurkitu dut hau, neronek!!! (*Koldo'ri masai-lean musu emanaz*). Hala ez al'da, Koldo?
- KOLDO** Ja... ja... ja... (*Irten bitez, goxo-goxo, elkarri helduaz*).

VIII

KALIXTO ETA PELLO

KALIXTO (*Zatotik zurrut*). Edan ezak hik ere, Pello.

PELLO Edan ezazu zerorrek!!!

KALIXTO Ja... ja... ja... Gu gaituk bikotea, gu... (*Zatotik zurrut*).

AMAIA



“NESKA ZAR” (Toribio ALZAGA)





KIMUBERRI taldea. 1965.XI.21





HITZ HUTSAK

I. BEGIRISTAIN (XII-1982)

HITZ HUTSAK

(Gaur Ikastoletan antzezteko eginiko satira, ekitaldi bakarrean)

(Oltzatxo bat antzezlekuan eta irazoi edo atrila bere gainean. Artaburua bat izango da mikrofono edo ezengailua, hanka baten muturrean. Bospasei jarleku.)

HERTZAINA.- (Harat-honat dabil, bazterretara begira. Zurrut egingo du sakeletik aterako duen zatotxotik. Harat-honat, berriro).

ENKARTELATUA.- (Kartoi bi dakartza sorbaldatik zintzilik, eskapularioen antzera. Hizki hauek ditu idatziak aurrean duen kartoiak:)

K . K . R . A .

MITINA
GAUR
ARRATSALDEAN
BOSTETAN

HERTZAINA.- Eskapulario horrekin zertan zabiltz, gizona?

ENKART.- (Atzeko hormari bizkarra ezarririk geldituko da.) Irakurtzen ez aldakizu ala zer? Mitina dugula, alegia, gaur arratsaldean.

HERTZAINA.- Berriro ere hasi al gara? Gezurra eta zipo ugari entzun beharrean gara, beraz. Eta, zein alderdi ego partidurena dugu gaurko hau?

ENKART.- (Aurreko kartoia erakutsiaz.) Ez al duzu ikusten?

HERTZAINA.- (Kartoiari begira.) K...K...R...A... Ja...ja...ja...!!!
(Leher behar du farrez.)

ENKART.- Zerk zabalerazten dizkitzu hortz handi hoiek?

HERTZAINA.- Ja...ja...ja...!!! Alderdi berriren bat al dugu hori?

ENKART.- Eztakit...

HERTZAINA.- Ja...ja...ja...!!! Ikusteko guztiak oraindik ez ditugu ikusi...

ENKART.- Mozkortuta al zaude ala zer?

HERTZAINA.- Ni mozkortuta?

ENKART.- Aurpegian duzun piper gorriak adierazten du nola zauden.

HERTZAINA.- Kontu, gero, zure hitzekin...!!! Eta... autoridadea naitzenik ez aaz!!

ENKART.- Ez, gizona, ez... Izan ere, hemengo hitzki hauek ikusi dituzula eta horrenbeste far egitea ere...

HERTZAINA.- Far egingo ez duzu bada hitzki hoiek ikusirik...
Ja...ja...ja... K.K.R.A.... Kaka errea.... Ja...ja...ja...

ENKART.- Kaka errea edo egosia, hauxe eman didate neri.

HERTZAINA.- Eta... zenbat ematen dizute hori erabiltzeagaitik?

ENKART.- Bost mila pezeta.

HERTZAINA.- Bost mila pezeta? Bada zerbait, alajainkoa!!

ENKART.- Asko dela al derizkiozu?

HERTZAINA.- Bai, horixe! Bost egin behar ditut nik dirutza hori irabazteko. Eta... egun osoan al zabiltz eskapulario horrekin?

ENKART.- Ez. Ordubetea erabiltzeagaitik ematen dizkidate bost mila pezeta.

HERTZAINA.- Errez ematen dute hoiek, besterenetik...

II

(Gizon bi agertuko dire, mitina entzuteko asmoz.)

GIZON BIEK.- Arratsaldeon.

HERTZAINA.- Bai zueri ere. Zertara zatozte?

ENTZULE I.- Bostetan dela mitina esan digute eta entzutera gatoz.

ENTZULE II.- Hemen izango da, noski?

HERTZAINA.- Nik ez dakit ezer. (Enkartelatuari begira.) Horroko horrek jakingo du.

ENKART.- Hementxe da mitina, bai. Laister etorriko zaigu hitzlaria.

ENTZULE I.- Nor dugu hitzlaria?

ENKART.- Nik eztaikit ezer...

HERTZAINA.- Bat edo bestea izan zer ajola? Hitza ugari, eskeintza asko eta gero zer? Ezer ez. Eta zuek, gizagajook, sinistu egingo duzute guztia, aho-zabal entzunaz.... Zuen bizkar bizi direnik ez al duzute ikusten?

ENTZULE II.- Gure bizkar bizi zara zu ere...

HERTZAINA.- Ni?

ENTZULE II.- Zu, bai. Nolako "cambia chaquetas" zaren badakigu... Eguzkiak berotzen duen alderdira ipintzen duzu zuk aurpegia...

HERTZAINA.- Nik?

ENTZULE II.- Zu, bai! Gorriek agintzen ba dute, gorri biurtzen zara zu ere. Zuriek agintzen ba dute, zuri...

HERTZAINA.- Badakizu... Sabel zahar honek asko behar du eta,...

ENTZULE I.- Bai, bai... Zure etxekoek askorik jango duten eztaikit bainan zuk.... Tabernan ikusten zaitut beti, txuleta jaten.

III

HITZLARIA I.- (Arin dator, galtzarbean komoneko paper-bilgoa due-larik. Oltzara igoko da zuzenean eta muturra askatuko dio atrilaren gainean ipiniko duen paper-bilgoari.)

HERTZAINA.- (Berekiko) Tirrineria ote gizon horrek? Bestela zertarako ote paper hori guztia?

HITZLARIA I.- Jaun andreok, arratsaldeon guztiori, gure K.K.R.A. alderdiaren mensaje inportante hau captatzera akuditu duzuten gizon eta andra guztiori.

HERTZAINA.- Barkatu jauna, bainan andrezko bakar bat ere ez da hemen.

HITZLARIA I.- (Asarre) Non ditugu, bada, herri hontako andreak? Ez gizonek bakarrik, andreek ere partizipatu behar dute sozietateko keaz-zer guztietan!! (Enkartelatuari) Ibili al zara kalez-kale, munizipio honetako abitante guztiek mitina dela jakin dezaten?

ENKARTELATUA.- Bai, jauna. Kale guztietan ibili naiz.

HERTZAINA.- Bereala dei egingo diet emakumezkoeri, nahi da duzu.

HITZLARIA I.- Zoaz, bai, eta ager daitezela honera, inmediateamente.

HERTZAINA.- (Entzuleeri) E...!!! Emakumeok...!!! Zatozte K.K.R.A.ren mitina entzutera!!!

(Emakume zahar bi irtengo dire jendartetik eta antzeslekuko aulkietan jarri.)

HITZLARIA I.- Emakume gazterik ez al da herri hontan?

HERTZAINA.- (Entzuleeri) E...!!! Emakume gazteak behar dituela, dio K.K.R.A.ko hitzlariak!!!

ENTZULE II.- Neuk ere, zaharrak baino nahiago nituzket gazteak.

ENTZULE I.- Ezta gezurra... Etxean ere zaharrik aski badugu...
(Emakume gazte bat igoko da jendartetik eta beste bien alboan jarri.)

HITZLARIA I.- (Ozenki mintzatuko da, paperari aldiz-aldi begiratuaz eta bilgoa askatzen hasi, arian-arian.)

Jaun-andreok: orain lau urte esan nizuen bezala, ni euskara ikasten ari naiz, bainan superfizialmente dominatzen dut oraindik eta nere interbentzioa ez da izango nik nahi bezain fluidoa eta nitidoa.

HERTZAINA.- (Berekiko) Fluidoa eta nitidoa? Salamankan ala non ari ote da hau euskara ikasten?

ANDRE I.- Horrenbeste urtez euskara ikasten eta oraindik ez duzu ikasi?

ANDRE II.- Esango nuke... Hemengo umeek ederki asko hitzegiten dute euskaraz, bi urte dituztenerako...

ENTZULE I.- Galderatxo bat egin nahi nizuke, hitzlari jauna...

HITZLARIA I.- Ia, bada, zer komunika nahi zenidakeen?

ENTZULE I.- Zuk bakarrik hitzegin behar al duzu, ala guk ere esan edo galdegin ahal genezake zerbait, tarteka?

HITZLARIA I.- Bai, noski! Estatu demokrata batetan bizi garelarik, demokratikamente aktuatu behar dugu eta horregaitik presentatu naiz gaur honera. Zuen botoeri esker konsegitu genuen mandatoa lehengo botazioetan eta demokrazia inplantatu.

ANDRE I.- Demokrazia zer da?

HITZLARIA I.- Demokrazia zer den eztaizuzu? Izan ere, emakume askok pisontziak ustutzen bakarrik dakizute!

HERTZAINA.- (Berekiko) Betetzen ere bai...

HITZLARIA I.- Demokrazia... demokrazia da! Herriak nahi duen guztia egin dezakeela, esan nahi du demokraziak.

EMAKUME II.- Nahi dugun guztia egin genezake, beraz?

HITZLARIA I.- Bai. Edozertarako deretxoa konferitzen du demokraziak. Soineko zuriz jantziko zara, soineko zuriz jantz nahi ba duzu. Minifalda gorriz jantziko zara, minifalda gorriz jantz nahi ba duzu. Dibortziatu egingo zara, senerrarekin aspertu ba zara.

EMAKUME II.- Nere adinean dibortziatu eta minifalda gorria jantzi?

HERTZAINA.- (Berekiko) Hori bai litzakeela teatro polita...

HITZLARIA I .- Esan bezala, guk inplantatu genuen demokrazia, consenso demokratiko baten bitartez poderea asumitu genuenean. Hutsik eta miseria bergonzoso batetan zegoen gure patria maitea. Jainkoak mundua kreatu zuenean bezelaxe zegoela, esango nuke. Dena iluna, dena tinieblak ziren hemen. Hemen etzan ezer, "Valle de los Caídos" ezik. "Valle de los Caídos" badakizute zer den, noski? Eroritakoen ibarra edo harana da "Valle de los Caídos". Eta...era askotara eror daiteke... Platano azalean irristatuta erortzen dire batzuk. Globoan igo eta goitik behera erortzen dire beste asko... Izan ere, behetik gora ez da inor erortzen... Zirikaldi gaiztoetan erortzen denik ere bada... Bainan... ez dezagun retrozeditu a trabes de los tiempos. Figuratzen al duzute zer gertatuko litzakeen a trabes de los tiempos retrozedituko ba genu...? Desastre izugarriak sobrebenituko litzazkigukeela, alegia. Gu, geuron izerdiz aberastu garenok, ezer gabe aurkituko ginake... Nere emaztea beste batekin ezkonduko litzake... Egundoko adarrak edonun... etzetera, etzetera... Tremebundoa izango litzake mundu hau, horrelakorik suzedituko balitz, Aristoteles erromatar insigneak esan zuen bezala...

ENTZULE II.- Bainan, zer ikustekorik du Aristoteles erromatar insigneak esan zuenak, gaurko mitinarekin eta demokraziarekin?

HITZLARIA I.- A...!! Ignorantea zu...!! Ignorantziak lotsagabetzen du gizona eta zu ere bai! Ignorantzia eta miseria besterik etzegoela hemen esan nahi nuen, guk poderea asumitu genuenean.

ENTZULE I.- Lehendik ere, zeuron eskuetan zenuten zuk diozun podere hori, berrogei urtez. Zer egin zenuten? Uda guztian hor ibili naiz ni, batetik bestera, bazterrak ikusten eta gaur berrogei urte ziren bezelakoxeak ikusi ditut.

HITZLARIA.- Gutxiago ibili eta... telebista gehiago ikus behar duzu, adiskide! Esan bezala, egundoko progresoa ezarri diogu guk herriari. Galde dezaiozun, bestela, horroko hertzain horri.

HERTZAINA.- Neri? Et...et...et... Neri ez ezer galdetu.

HITZLARIA I.- Esaidazu! Lehen baino hobeto ez al zara bizi orain?

HERTZAINA.- Bo....

HITZLARIA I.- Zer jaten duzu egunoro?

HERTZAINA.- Ba... goizean, baraua austeko, kafesne-zopak. Gero, bederatzietan, lukainka-mutur bat bi arrautzekin eta litro sagardoa.

HITZLARIA I.- Mutur bateko lukainka esan ez duzu?

HERTZAINA.- Bai.

HITZLARIA I.- Toki frankotan ibilia naiz, bainan, mutur bateko lukainkarik oraindik ez dut ikusi.

HERTZAINA.- Nik bai.

HITZLARIA.- Eta, gero, zer bazkaltzen duzu?

HERTZAINA.- Hamaiketakoa egin ohi dut bazkal aurretik. gero, bazkaltzeko oilo-salda, txuleta eta postrea.

HITZLARIA I.- Eta, kafe konpletorik ez?

HERTZAINA.- Bai. Bazkalondoan eta afalondoan hartzen dut kafe konpletoa. Gero, arratsaldekoa eta afaria tabernan egin ohi ditut.

HITZLARIA I.- Ezkondua izango zara, noski?

HERTZAINA.- Bai. Zortzi seme-alaba ere baditut.

HITZLARIA I.- Zortzi seme-alaba? Hori da barbaritatea, hori!!!

HERTZAINA.- Barbaritatea izango da bainan halaxen ditut. Nereak sei, eta emaztearenak zortzi.

HITZLARIA I.- Sei eta zortzi... hamalau, beraz?

HERTZAINA.- Ez, gizona, ez. Nereak sei eta espetxean nengoelarik emazteak izan zituen beste bi, zortzi guztira.

HITZLARIA I.- Espetxera joaten al-zitzaizun emaztea?

HERTZAINA.- Ez...ez...bai...bai... Joaten zitzaidan bainan burnizko erreja izaten genuen tartean.

HITZLARIA I.- Je... Burnizko erreja tartean eta hala ere... bi seme, e?

HERTZAINA.- Zer adieraz nahi didazun badakit, urde horrek... Ez, ez... Bi horiek ez dire nereak.

HITZLARIA I.- Zu ere... kornupedoa zaitugu, beraz?

HERTZAINA.- Zer?

HITZLARIA I.- Zenbat irabazten duzu hertzaintzan?

HERTZAINA.- Ilean hogetamar mila pezeta.

HITZLARIA.- Hori horrela delarik... gaurko zure nibel de bida hori nori zor diozun bai al dakizu?

HERTZAINA.- Bai. Iloro hogeï mila duro bidaltzen dizkidan nere arreba bati.

HITZLARIA I.- Ilean hogeï mila duro, e? Eta... zertara dedikatzen da zure arreba hori?

HERTZAINA.- Relaciones publikas, kortesetan.

HITZLARIA I.- Madrilgo kortesetan?

HERTZAINA.- Ez, gizona, ez. Bilboko kortesetan. Bainan, hura ere zahartzen ari de ni bezalaxe eta bere relaciones publikas laister amaituko direla uste dut.

EMAKUME I.- Nik, neskame egoten zela uste nuen eta... Nongo eskolan ikasi ditu zure arrebak zera hoiek...? Nola esan duzu?

HERTZAINA.- *Relaciones publikas...*

EMAKUME I.- Zer lan da hori?

HITZLARIA I.- Utz ditzagun orain *relaciones publikas* direlakoak eta jarrai dezagun mitina. Zenbat gizon eta emakume lanik gabeak ditugun bai al-dakizute? Bi miloetik gora ditugu, lanik ez dutenak. Eta guk, zuen botoaren bidez poderea konkistatzen dugunean, guztieri sortuko dizkiegu lanpostuak. Guztiok izango duzute lana.

ENTZULE I.- Zuek ere bai?

HITZLARIA I.- Zueri lana aurkitzea izango da gure lana.

ENTZULE II.- Bai, bai... Guk lana egin eta zuek sakelak bete. Betikoa...

HITZLARIA I.- Hirurogei urtekin jubilatuko dire gure zaharrak eta gure semeek *serbizio militarrik* ez dute egingo.

GAZTEA.- Bai, ederki... Nik behintzat, zueri emango dizuet botoa, nere senar-gaia gudaritzara joan ez dadin.

HITZLARIA I.- (Paper-bilgoa aska eta aska aritu delarik, bukatu zaio eta lurrean dago guztia.)

EMAKUME I.- (Poltsa batera sartuko du lurreko paper guztia.)

HITZLARIA I.- Paper hori guztia zertarako duzu, emakume?

EMAKUME I.- Badakizu... (Eskua sabelera eramanez.) Arin antzean nabil aspaldian eta... badakizu...

HITZLARIA I.- Zure zerako zera garbitzeko duzu, beraz, nere diskurtsoa?

EMAKUME I.- Ez larritu, jauna, ez larritu... legun-legun erabiliko dut eta...

HITZLARIA I.- Eta, orain, besterik gabe, amai dezagun gaurko akto politiko hau. GORA GU...!!!

HERTZAINA.- GORA...!!!

HITZLARIA I.- BEHERA BESTEAK...!!!

HERTZAINA.- BEHERA...!!! (Txaloka ekingo dio.)

HITZLARIA I.- (Oltzatik jetxi eta badoa eta Enkartelatua ere bai bere aurretik. Enkartelatuak atzeko kartoiean daramatzen hitzkiak ikusirik:) Zer da hori?

ENKARTELATUA.- Zer...?

HITZLARIA I.- Atzeko kartoiean daramazkizun hitzki hoiek?

ENKARTELATUA.- A... Seiretan beste mitina da, jauna.

HITZLARIA I.- Beste mitina? Eta, nik eman dizudan bost mila pezetako?

ENKARTELATUA.- Zuk eman didazun bost mila pezetakoaren eginkizuna bete dut eta besteak eman didanarena ere bai. Aldi batez bete ditut eginkizun biak.

HITZLARIA I.- Lapurreta da hori!! (Asarre doa.)

IV

ENKARTELATUA.- (Atzekoz-aurrera ipiniko ditu kartoia. Hauxe dio orain aurrean duen kartoia:)

T. G. R. O.

*MITINA
GAUR
ARRATSALDEAN
SEIRETAN*

(Atzeko hormara joango da berriro.)

EMAKUME I.- Bai gizakume bikain eta egokia horixe!!!

EMAKUME II.- Hori zergaitik diozun badakit.

EMAKUME I.- Zergaitik?

EMAKUME II.- Zera... Papera eman dizulako.

EMAKUME I.- Ez, ez... Berdin berdin esango nuen paperik eman ez ba zidan ere. Eta bai ederki mintzatu dela...

GAZTEA.- Bai, bai... Nik behintzat horri emango diot botoa.

HERTZAINA.- Bai zoroak zaretela... Orain datorrenak ere zera berak esango ditu. Gezurra, guztia gezurra...

ENTZULE I.- Gogor aritu zara, bada, goraka eta beheraka... Txalorik ere jo diozu.

HERTZAINA.- Badakizu... Ni hertzaina naiz, agente publikoa, eta guztiekin ondo eon behar dut .. Orain datorrenari ere txalo iako diot nik

ENTZULE II.- *Eta, nori emango diozu autarkia?*

HERTZAINA.- *A... Hori besterik da... Botoa... badakizu... ezkutukoa izaten da eta inork ez du jakiten nori ematen zaion...*

ENTZULE II.- *Itxurak egiten dituzu, beraz?*

HERTZAINA.- *Itxurak egin behar dire gaurko egunean, itxurak... Gaizki ibiliko zera bestela...*

EMAKUME I.-*Elizara ere itxura egitera joaten al zara?*

HERTZAINA.- *Elizara? Norbait hiltzen denean bakarrik joaten naiz ni elizara, etxekoandre...*

GAZTEA.- *Noiz dugu beste mitina?*

ENKARTELATUA.- *Seiretan. Garbi asko idatzia dago hemen.*

GAZTEA.- *Seiretan? (Ordulari begira.) Gaurkoetan ez behintzat.*

ENKARTELATUA.- *Gizon hoiek, badakizu... zeregin asko izan ohi dutela. Gainera, beste mitina ere entzun nahi al duzute bada?*

ENTZULE II.- *Zergaitik ez? Guztieri entzuten behar zaie eta nori ker-tenkeria eta gezur gehiago esaten duten jakin. Guztia ezberdina izaten da auteskunde aurretik. Lehen esaten etzituzten gauzak esaten dituzte politikariek. Atzo madrildar eta gure etsai amorratu zena, euskaldun porrokatu agertuko zaigu gaur. Horixe da horien eginkizuna eta jomuga, guk garranga irensten ba-dugu. arrazoa du hertzainak. Itxurak egin behar ditugu guk ere, gure bizkar farrik egin ez dezaten.*

ENKARTELATUA.- *Iso...! Hitzlaria hemen dugu.*

HITZLARIA II. - (Kopeteko izerdia eskuzapiz txukatuaz agertuko da, eta oltzara igo arin.) Barkatu, jaun-andreok, bospasei minutu beranduago etorri banatzaizue. Nere txoferraren emazteak haurra izan omen du eta beste txofer bat har behar izan dut eta hau motelagoa delarik, horra: berandu iritsi naiz.

(Ozenki.) Jaun-andreok, hauxe da edertasuna, hau da gure alderdiaren deiari bikain erantzutea!! Herri osoa etorri zarete alderdiaren hitza entzutera eta, zin dagizuet, etzeratela damutuko!! Izan ere, zein partiduk eskeini eta eman dezaizueke gure alderdiak dezakeena? Hitzak, hitz ugari esango dizkitzue eta azkenean... putza!! Ezer ez...!! Bestelakoa da, ordea, gure partidua. Eskeintzen duena eta gehiago emango dizue gure partiduak.

Nortzuk atera zuten Espainia etsai gaiztoen atzamarretatik, guztiok pozez gogoratzen dugun kruzada santu hartan? Guk...!!!

Noiz izan du Espainiak, geroz, berrogetaka urtez izan duen pakea, zoriona eta aberastasuna?

HERTZAINA. - (Berekiko) Aberastasuna? Nik ez asko...

HITZLARIA II. - Orduan zapaldu genituen etsai haiek, ordea, indartzen ari dire berriro eta zapaldu egin nahi gaituzte!! Guk, gure kruzada indarberritu genituen erlijioa eta fedea, epeltzen, deusezten ari zaizkigu gure etsai amorratuek, aintzinatik fededun izan den Vaskongadaetan betez ere!!!

EMAKUME II. - (Txaloka.)

EMAKUME I. - Isilik zaude, txoro hori.

EMAKUME II. - Isilik egoteko ere ongi zaude zu, komoneko paperez poltsa bete duzu eta...

HITZLARIA II. - Vaskongadaetan piztu da bai sua, berriro ere eta bonberoak ekarri beharko su hau itzaliko ba-da!! Bonberoa zen nere aita zena ere.

HERTZAINA .- (Berekiko) Bai. Hire aita bonberoa eta hi berriz... manga... mangantea...

HITZLARIA II.- Bonberoak, bonberoak behar ditugu hemen!! Eta, bes-tela ezin ba-da, moroak ekarriko ditugu, kruzada santu hartan bezala!!

EMAKUME I.- Moroak...? Jesus, Maria eta Jose... Moroak...

EMAKUME II.- Moroak... Galduak gera orduantxe... Pentsa... nola ibili beharko duten gure alaba gaixoak...

HITZLARIA II.- Moroek zer dute, bada, guk ez dugunik...?

EMAKUMEA II.- Zera... Esateak ere lotsa ematen dit...

HITZLARIA II.- Bonberoak eta moroak, bai!! Gero, lanpostuak sort behar ditugu lanik gabe dauden bi milioi horientzat, goseak hil ez dai-tezen. Eta hori, gure partiduak eta guk sortz genezake.

HERTZAINA .- (Berekiko) Lanpostuak sortuko dituzuten ala ez etze-kiat, bainan lanik egingo ez duzutela bai...

HITZLARIA II .- Jubilatueri ere ugarituko diegu zahar-saria.

EMAKUME I .- Noiz?

HITZLARIA II .- Laister! Zuen botoaren bitartez agintea guganatzten dugunean.

EMAKUME I.- Bost mila pezeta besterik ez didate neri ematen.

HITZLARIA II .- Eta, zer egiten duzu bost mila pezetekin?

EMAKUME I .- Ohean egoten naiz egun osoan, goseak ahuldu ez nazan.

HITZLARIA II .- Ez larritu, emakume! Berrogetamar emango dizkizu-gu guk, eta gehiago ere bai agian. Hori da Jainkoaren legea! Gaur ez da utopia besterik. Abrahamen, Isaacen eta Jacoben Jainko hura baz-tertua dago zearo eta askorentzat hila dago Jainko hori, zientifikoki eta politikoki.

HERTZAINA.- (Berekiko) Zer esaten ari da hori, ordea?

HITZLARIA II.- Zapuztu egin du herriak Jainkoa, zibilizazio tekniko batetan murgildu denenan. Zuek, ordea, ignorante eta ezjakinak zaretelarik, honelako arazorik ez duzute nabaitzen eta itsu-itsuan joango zarete edonori zuen botoa ematera... Erne ibili, bainan!!! Ezkontza haustea eta dibortzioa legetetu nahi duten hauek, abortoa babestu nahi duten hauek zertaraino irits daitezen bai al-dakizute?

EMAKUMEA II.- Dibortzioa eta abortoa...? (Beste emakumeari.) Guk behintzat, horrelakoren beldurrik ez dugu, Anttoni. Zahartu garenez gero, lehengo senarrari eutsi beharko diogu. Abortoa berriz... Iaioa dago bada nere senarra... ni abortorako bidean ipintzeko... Hogeit urte hauetan ipurdia ematen dit ohean.

GAZTEA.- Nork jakin, Kaxilda... Gizonezkoak... badakizu... Eta, zure senarrak ere zorrotz begiratzen die, gero, neskatz gazteeri...

EMAKUME II.- Bai, zera... Intentzioa bai...

HERTZAINA.- (Berekiko.) Zurekin intentzioa... Ja...ja...ja...

HITZLARIA II.- Gure gizartea noraino amil daitekeen ohartzen al-zarete? Bainan guk horrelakorik ez dugu baietsiko!! Golpeak eman behar ba-dire, golpeak emango ditugu!! Orain artekoak txikitxoak izan dire, bainan urrengoa... Berrogetaka urtez izan ditugun pake eta zoriona, ez genezazke unetxo batetan gal!! Gure anima ilezkorra dela esan zuen Platonek eta gure ekintzak ere halaxe behar dute!! Betidanikoak direla animak, esan zuen Platonek eta urrenez urren reekarnatzen edo bergizontzen direla. Onartzen du gure erlijioak animaren ilezkortasuna bainan bergizontze hori ez!! Gurasoengandik omen datorkie anima ondorengoeri, San Agustinek esan zuenez. Gure erlijioak berriz, Jainkoagandik datorkigula anima zuzen-zuzenean, irakasten digu. Gure bizitza, gatibuntzarako aro edo aldia omen da, Socrates handiak esan zuenez, eriotzaren ondoren izango dugun bizitzarako.

Horregaitik diozuet nik: garbitu egin behar dugula hemen eta oztopoak kendu!! Horretarako dire golpeak!! Garbitzeko, alegia!!

EMAKUME I.- (Txalo.) Hori da hitzegitea, hori...!

EMAKUME II.- Zer esan du? Nik ezertxo ere ez diot ulertu.

EMAKUME I.- Purgatoriorik ikusi gabe joango garela zerura esan du, T.G.R.O.ri botoa ematen ba-diogu.

EMAKUME II.- Tejero hori nor da?

EMAKUME I.- Nik zer dakit...? T.G.R.O. ipintzen du hor eta partiduren bat izango da, eta partidu ona.

GAZTEA.- Ona izango da bainan, nere senar-gaia gudaritzara joango ez denik ez du esan...

HITZLARIA II.- Nere planteamendua argi eta garbi agertu dizuedala uste dut.

GAZTEA.- Nik garbi ikusten ez dudan zerbait bada zure planteamendu hortan, jauna. Zuk, alegia, dibortziorik eta abortorik ez dela izango esan duzu. Bainan, zeurok agintzen zendutenean ere izan ohi ziren dibortzioak eta abortoak.

HITZLARIA II.- (Asarre) Aberatsak, artistak eta horrelakoak dibortziazten ziren orduan. Abortoak egitera, berriz, Inglaterrara joaten ziren, dirua zutenak. Dirua, dirua behar zen hortarako. Diruak irikitzen ditu bideak. Eta, zuk, herriska honetako gazte arlote bat besterik etzeran horrek, zer adieraz nahi didazu orduko gure errejimenaren aurkakorik?

HERTZAINA .- (Berekiko) Lehen hitzegin duena urdea ba-zen, hau basurdea ere baduk.

HITZLARIA II .- (Gazteari) Zuk ere, hor kalean dabiltzan zalapartariak bezala, independentzia nahiko duzu, noski?

EMAKUME I .- (Beste emakumeari) Independentzia zer da?

EMAKUME II .- Pazientzia, Anttoni, pazientzia... Pazientzia da hori.

HITZLARIA II .- Eta orain, besterik gabe, amai dezagun gaurko ospakizun eder hau. GORA GU!!!

HERTZAINA .- Gora...!!!

HITZLARIA II .- Behera bestea...!!!

HERTZAINA .- Behera...!!! (Txaloka)

HITZLARIA II .- (Badoa, bere gauzak harturik)

ENKARTELATUA .- (Hitzlariaren aurretik joango da. Berriro itzuli eta alderantziz ipiniko du eskapularioa. Honela dio, orain aurrekaldean duen kartoiak)

J . K . E .

MITINA
GAUR
ARRATSALDEAN
ZAZPIRETAN

HERTZAINA .- (Enkartelatuari) Zer...? Orain bestea?

ENKART .- Beste bat, bai. Azkenekoa dugu, gaurkoz.

HERTZAINA .- Gaurkoz? Biharko, etzirako... eta... betirako ere bai, neretzat.

HITZLARIA .- (Arin dator eta oltzara igoko da)

HERTZAINA .- (Txalo)

EMAKUME II (Hertzainari) Lau azal badituzu kopetea...)

HITZLARIA III.- Zer diozu, andre?

EMAKUME II.- Ez, ez... Hertzainarekin ari nintzen.

HITZLARIA .- Arratsaldeon, jaun-andreok eta eskerrikasko honenbeste gizon eta emakume gure alderdiaren mezua entzutera etorri zaretelako.

HERTZAINA .- (Txalo)

HITZLARIA III.- Ni, Amerikan, Europan eta mundu guztian zear ibilia naizelarik, eta urte askoz, zueri euskeraz hitzegiteko gai naiz oraindik.

EMAKUME II.- Barka bezait, jauna, bainan... zertan ibili zera munduan zear horrenbeste urtez?

HITZLARIA III.- Galdera bikaina egin didazu, etxekoandre, eta berehala erantzungo dizut: misiolari ibili nintzen, misiolari...!! Apaiz nintzelarik, Jesukristoren dotrina zabaltzen ibili eta ahalegindu nintzen, sinisgabeen artean. Ni misioetara joan nintzenean, "intonuit de coelo Dominus eta Altissimus dedit vocem suam"

HERTZAINA .- (Txalo)

GAZTEA .- Orain ere apaiza al-zera?

HITZLARIA III.- Ez. Lehen sinisgabeen Jesukristoren artaldera eraman nituen bezelaxe, gure alderdiako artaldera erakar nahi zaituet zuek.

EMAKUME II.- Zergaitik utzi zenuen apaizgintza.

EMAKUME I.- (beste amakumeari) Zorua zu... Artalde handiegia egin ez zedin.

HITZLARIA III.- Bai, jaun-andreok! Orain gure alderdira erakar nahi zaituet!!!

EMAKUME II.- Apaizgintza zergaitik utzi zenuen ez didazu esan, jauna.

HITZLARIA III.- Hori... Jainkoak eta nik dakigu...

HERTZAINA .- Beste norbaitek ere jakingo du, bai. (Berekiko)

EMAKUME II.- Gero, ezkondu egingo zinean, noski?

HITZLARIA III.- (Urduri) Ba..bai, andre.

EMAKUME I.- Je...je... Gonak gustatzen e?

HERTZAINA .- (Berekiko) Gonak ez, gonapekoak...

HITZLARIA III.- Gizona bakarrik ez daiteke bizi... Adani ere laguna eman zion Jainkoak, bere saiets-ezurrez Eba eginaz.

HERTZAINA .- (Berekiko) Bai; Estados Unidos...

HITZLARIA III.- "Passer invenit sibi domum et tutur nidum, ubi répo-nat pullos suos...!!

HERTZAINA .- Lausti Kristi amen...

(Txalo egingo dute emakume biek, elkarri begiratuaz, aldi batez "Aitare" eginaz)

HITZLARIA III.- Jarrai dezagun. Guk gure izerdiz ereindako gariz egi-niko ogi koskorra bidaltzen digute Madrildik!!!

HERTZAINA .- (Txalo)

EMAKUME I.- Nekazaria al-zaitugu zu ere?

HITZLARIA III.- Nekazaria ez naiz, ez.

EMAKUME I.- Gure izerdiz ereindako garia esa duzu eta...

HITZLARIA III.- Han gabiltza Madrilen borroka bizian, gure eskubi-deak lortzearren eta... zerbait lortu dugunean... Loapa sortu digute!!!

EMAKUME I.- Loapa hori zer da?

HITZLARIA III.- Loapa zer den galdezka zatozkit orain?

EMAKUME I.- Galdetu egin behar bada, zer den eztakit eta...

HITZLARIA III.- Umetxoari "tori eta tati" egitea bexelaxe da hori. Lo-lo... eta... apa-apa... Zenbat borroka egin dugun ba-zenekite. Loapa

zorioneko hori dela ez dela... Zirt eta zart... ezkubi eta ezker, bainan alferrik...

EMAKUME II.- Mutur joka ibili zarate beraz?

HITZLARI III.- Mutur-joka ez...bainan...ia-ia..Hitzezko borrokak izan ditugu.

HERTZAINA .- (Berekiko) Betikoa...Hitzak...besterik ez.

GAZTEA .- Eta gero?

HITZLARIA III.- Gero...elkarri esku emanaz amaitzen genuen borroka, urrengo eguna arte.

GAZTEA .- Eta, urrengo egunean?

HITZLARIA III.- Urrengo egunean, zirt eta zart berriro, eguna ilundu arte.

GAZTEA .- Eta, eguna ilundutakoan?

HITZLARIA III.- Afaltzera joaten ginen elkarrekin.

GAZTEA .- Eta, afaldutakoan?

HERTZAINA .- (Berekiko) Afal-ondoan zera...gonapekoak.

EMAKUME II.- Gaur hemen izan diren hitzlariak zerbait eskeini digute bainan zuk ezertxo ere ez diguzu eskeintzen.

HITZLARIA III.- Guk, herri bati dagokion guztia eskeintzen diogu eta ez eskeini bakarrik, bai eta emango ere!!! Lehendik ere badugu zerbait lortua!! Hor duzute autonomia, hor duzute hertzaina...

HERTZAINA .- Ni?

HITZLARIA III.- Hor duzute jaurlaritza euskalduna!!

EMAKUME II.- Jaurlaritza bai, euskalduna ez ordea. Ia inork ez omen daki euskerarik. Eta, euskerarik ez ba-dakite, nola izango dire euskaldun? (Emakume I'ri) Zu haurdun zaudela esatea bezala da hori, ANTONI...

EMAKUME I.- Ni haurdun? Ni aspaldian antzu nago, Kaxilda.

HITZLARIA III.- Askatasuna, askatasuna lort behar dugu gure herriarentzat.

ENTZULE I.- Askatasuna eta independentzia berdinak izango dire, noski?

HITZLARIA III.- Ez...!! Askatasuna, askatasuna da, eta...

HERTZAINA .- (Berekiko) Independentzia, berriz, independentzia...

HITZLARIA III.- Hor, kalean zehar dabiltzan zalapartariak eskatzen dute independentzia. Independentzia emango ba-ligukete, zer jango genuke...? Zimaurra...!!! Zer edango genuke...?? Ura...!!!

ENTZULE II.- Urik ere ez dugu herri hontan.

HITZLARIA III.- Urik ez duzutela? Gure alderdiak emango dizue ura, urik ez ba-duzute!!

ENTZULE II.- Orain lau urte ere horixe bera esan zenigun...

HITZLARIA III.- Zozoa zu!! Euririk egin ez duela ez al-dakizu?

HERTZAINA .- (Berekiko) Zuek eman gabarik ere izango genuke ura, euririk eginez gero.

HITZLARIA III.- Eta...euririk egiten ez ba-du...miraria egingo dugu, ura izan dezazuten. Moises baino gutxiago al-gara bada gu?

GAZTEA .- Hitzlari jauna: mutilek gudaritzara joan beharrik izango al-dute, zuek irabazten ba-duzute?

HITZLARIA III.- Handiak gire gure ahalmenak bainan hotarainokoak ez. Badakizu, gazte: Jainkoari Jainkoarena eta...Zesari Zesarrena. (Aitarek emakume biek)

HERTZAINA .- (Gazteari) Hiru bider galdetu duzu horixe bera.

EMAKUME I.- Ihes egingo ote dizun beldurra al-duzun? Gaurko gazteek, izan ere...zilegi dute edozer...

GAZTEA .- (Zutiturik eta eskua sabelera eramanez) Aizu, Anttoni: bir-jin nago gero ni oraindik...!! (Haurdun dago gaztea)

HERTZAINA .- (Berekiko) Birjin...? Telefonoz egin ote diote hori?

HITZLARIA III.- Jaun-andreok: gure alderdiaren puntoak agertu dizkizuedanez gero, amai dezagun gaurko festa. GORA GU...!!!

HERTZAINA.- GORA!!!

HITZLARIA III.- BEHERA BESTEAK...!!!

HERTZAINA.- BEHERA...!!!

HITZLARIA III.- (Badoa, bere horriak harturik.)

ENKARTELATUA.- (Hitzlariaren ondoren doa.)

HERTZAINA.- (Zatoz atereaz.) Txurrit bat merezi du honek. (Txurrit egingo du eta besteeri eskeini.)

ENTZULE I.- Festa hau ongi bukatzeko bai al-dakizute zer behar genukeen orain?

HERTZAINA.- Zer?

ENTZULE I.- Gure erretore jaunak hitzegitea.

HERTZAINA.- Besterik ez genuke behar..

EMAKUME I.- Zergaitik ez? Hor hitzegin dutenek baino hobeto hitze-gingo luke, bai.

ENTZULE I.- Apaizak hitzegitea nahi al-duzute? Gaur goizeko sermoia entzun diot eta neronek esango dizuet hark esan duen guztia. (Sotana jantzi eta oltzara igoko da.)

Nere adiskide biotzekoak. Gaurko ebanjelioa utzi eta aste honetan izango dugun ospakizun garrantzizko batetaz mintzatuko natzaizue.

Senide maiteok, badakizue zer egun datorkigun. Egun handia, egun alaia gu kristauntzat. Gure agintariak autarkiaren bidez aukeratuko ditugun eguna. Eta... botoa nori eman behar zaion galdetuko didazute, noski. Bainan, zuen galdera horri erantzunik emateko eskubiderik

ez dut nik. Zuen kontzientziak emango dizue erantzuna. Botoa nori eman? Gizon fededunei eman behar diozue botoa, gure kristautasun argala sendotu dezaten. Botoa nori eman? Nori eman zenioketen ez dizuet esango bainan gure eliz ama santuaren etsaieri ez, behintzat!

Gure sinismena ahultzen ari da, kristauok! Galtzen ari gera fedea! Hauxe esango dizuet, adibidez: Antzina, eta ain antzina ez delarik ere bai, apaiz guztiek izan ohi zituzten neskameak. Gaur, berriz, inork ez! Neska gazteek ez dute neskame joan nahi! Eta, zergaitik ez dute joan nahi? Sinismena galdu dutelako! Lagun urkoaganako maitasuna eta errukia galdu dituztelako! Eta apaiz gizagajoak, heuren etxeak txukuntzeko, otorduak maniatzeko eta oheak egiteko neskamerik ez dute-larik, ezkondu egiten dire asko eta asko!

Sinismena, kristauok, sinismena indartu behar dugu! Eta, sinismena indarze hori nola lort genezake? Alderdi onenari zuen botoa emanaz eta gizonik sinismendunenak aukeratuaz! Zuen botoa nori eman nik ez dizuet esango, bainan zintzoenari eman diozutela bai eta botoa ematera behartuak zaudetela ere bai! Eta hau honela eginaz lortuko dugu guztiok itxaro dugun pake eta zoriona.

HERTZAINA.- Alajainkoa...!! Apaiz bikaina zinake gero zu...!!
Zerriak zirikatzen ibiltzea baino hobe zenuen apaiz egin izan ba-zina...

APAIZA.- Zerriak ezezik, hanka bikorik ere baduk gure herrian zikira beharrekorik.

EMAKUME I.- Neretzat lehenengo hura izan da atseginena.

EMAKUME II.- Horixe...! Atzeko zera garbitzeko papera eman dizulako...

EMAKUME I.- Zuk ere hartuko zenuen bai...

EMAKUME II.- Nik? Zu bezain arlotea naizela uste al-duzu?

EMAKUME I.- (Asarre) Zu bai arlotea, zorritsu hori!! Komoneko papera hartu dedala eta hor zaude ezin eramanik...

EMAKUME II.- Ni zorritsua? (Beste emakumeak poltsa duen papera

*ateratzen hasiko da. Egundoko borroka egingo dute, elkarri mototsar-
tik helduaz.)*

*HERTZAINA.- Hona zer dakarten politikari hitz-jario hoiek: borroka
eta ezin-ikusia. Eta, komoneko paperagaitik guztia... Horixe da politi-
ka gu bezalakoentzat... Paper horrekin garbitzen den zerako zera...
(Beso banatatik harturik eramango ditu emakume biak eta heuren
atzetik doaz besteak ere.)*

AMAIA



AZPEITIKO UDALA



ALEGIAKO UDALA



kutxa fundazioa
fundación kutxa